

Herririk Herri |3|
Tradizinoari utsiz, otxandiarrek
Basobisitan irtengo dabe domekan

Ekonomia |10|
Rothenbergerren kaleratutako
langilea protesta-kanpaldian



Berbaz |9|
Aitor Beobide: "Lasaitasun tentsoa
bizi dabe uneotan Palestinan"

Sigi-Saga elkarteak, bidegorrien erabilera bultzatuz

Durangaldea • Eskualdeko hainbat bizikletazalek Sigi-Saga elkarteak sortu dabe. Bidegorrien eta bizikleta erreien erabilera araudiak udalek elkarlanean osatzeko eskatu dau elkarteak. Dagoeneko 40 lagunek izena emon dabe. **2**

Auzoetako alkateak aukeratzeko hauteskundeak

Elorrio • Auzoetako beharrei irtenbideak bilatu guran, auzo-kontseilua sortu gura dau Udalak. Kontseiluak izaera kontsultiboa izango dau; hango proposamenak plenoak onartu beharko ditu. **6**

"Dantzakera naturala gura dogu berreskuratu"

KULTURA • AIKO dantza taldeko txistulari eta irakasle den Sabin Bikandi galdakoztarrak aurkeztu deusku, asteon, urrian Durangoko Plateruenean hasiko daben dantza ikasturte barria. **13**

Asteon hasi da Cafés Baqué Txapelketa

KIROLA • Kadete eta gazte mailako 48 pilotarik parte hartuko dabe aurtengo aldian. Eguaztenean lehen jardunaldia jokatu eben Mañarian. Finalerdia Atxondon jokatuko ditue azaroaren 25ean; finala Abadiñok hartuko dau 29an. **24**

• **Abadiño**
Axura elkarteak egoitza barria atontzen dihardu **7**

• **Atxondo**
Euskal Herriko Artzain-txakur Txapelketa domekan **2**

• **Durango**
Autobus Teknologikoak Durangaldea bisitatuko dau **7**

• **Abadiño**
Aita Kurutzeko jaietan Mozorro Eguna izango da bihar **7**

EAJK ez ditu galarazoko presoeren argazkiak jaietan

> Durangoko jeltzaleen erabakiak ika-mika eragin dau azkenengo udalbatzarrean

> Mehatxu egiten daben pankartak kenduarazoko dituela dino EAJK

3

Anderebide emakume elkarteak aurkeztu dabe jendaurrean

Iurreta • Emakumeen garapen integrala bultzatzea eta gizarteko erakundeetan emakumeen zuzeneko parte-hartze aktiboa sustatzea: bi horreek dira martitzenean Ibarretxe kultur etxean jendaurrean aurkeztu eben Anderebide emakume elkartearen helburu nagusiak. Jabekuntza ikastaro batean elkartutako emakumeek elkarteak sortzeko beharra ikusi eben. Emakumeen alde lan egin guran, dagoeneko adin guztietako 70 bazkide elkartu dira Anderebiden. Goiuria kulturgunean daukie lokala. **4**



Iban Gorriti

ZAINDU HAGIN KLINIKA

MARI TERE ZAMALLOA JUARISTI

• Odontologia orokorra •

BERRIA ABADIÑO!

eguerdietan zabalik



INPLANTEAK (hainbat tratamendu mota)
ORTODONTZIA
PERIODONTZIA
AHO ESTETIKA
PROTESIAK, ...

Periodontzian espezializatua

Eskaintza bereziak umeentzat

Ferialeku, 1 behea • Abadiño • Tel.: 94 465 73 42

HERRIRIK HERRI >

DURANGALDEA

Bizikleta erreiak aldarrikatuz, elkarte barria sortu gura dabe bizikletazaleek

Iurretako Goiuria kulturgunean dauka egoitza 'Sigi-Saga' Durangaldeko elkarte barriak

Bizikleta erreiak edo bidegorriak bizikletendako direla aldarrikatu guran, elkar-teasortzeko pausoak emoten hasita dagoz eskualdeko hainbat bizikletazale. Iurretako Goiuria kulturgunean dauka egoitza asteen aurkeztu daben 'Sigi-Saga' Durangaldeko bizikletazaleen elkarteak. Agus Ruiz elkarteko kideak azaldu dauenez, 40 atxikimendutik gora jaso ditue.

Europako hainbat herrialde eredu hartuta "mentalitatea" alda-

tu gura dau Sigi-Saga elkarteak, eta bidegorriak, oinezbideak barik, bizikletendako erreiak direla ohartarazo; era berean, bizikletariet bertatik ibili behar dabela be gogorazoz be bai. Gaur egun, Durangon bakarrik dagoz bizikletendako erreiak eskualdean. Udalei eskatu gura deutsee, bestalde, horreek libre egotea bermatzeko neurriak hartzeko. "Udalek inbertsinoa egiten dabe, eta euren funtzinoa bete daien gura dogu", dino Ruizek.

Udalek elkarlanean bizikleta-erreien erabilera araudiak osatzea gura dau Sigi-Sagak. Era berean, "epe luzera" bada be, Durangaldeko bizikleta-errei sarea osatzea. Bide-hezkuntza edo mekanika ikastaroak antolatzeta be pentsatu dabe. Jaurlaritzara jo dabe beharrezko trami-teetarako, eta urte amaieran Zuzendaritza Batzordea osatzea aurreikusit dabe. ■ A. Basauri

Aurkezpena egin dabe lurreta, Durango eta Zornotzan; gaur, Elorrion daukie hitzordua

Jaurlaritzara jo dabe beharrezko trami-teetarako; urte amaieran osatuko dabe Zuzendaritza Batzordea

Unibertsitateko Kultur Aisialdi Ikastaroak

Aurreko urteetan legez, 'Unibertsitateko Kultur Aisialdi Ikastaroak' antolatu ditu Durangaldeko Aمان-komunazgoko Adinekoen Sailak, Deustuko Unibertsitategatz batera. Horretera, oraingo honetan, kurtsu bi eskainiko ditue: *La política exterior de Estado Unidos en un mundo en cambio* (Josu Otxoa)

eta *El cine a través de la psicología: un cruce infinito de caminos* (Bittor Arnaiz). Hurrenez hurren, 17:00etatik 18:30era eta 19:00etatik 20:30era emongo ditue eskolak, biak martitzenetan.

Urriaren 2a bitartean emon leiteke izena, Durangoko Askatasun Etorbideko egoitzan. ■ A. B.

Deustuko Unibertsitategatz batera eratu ditu ikastaroak Amankomunazgoak

ATXONDO

Artzain-txakur Lehiaketa Elizburuko zelaian, domekan

Euskal Herriko herrialde guztietako txapeldun eta txapeldunordeak batuko dira

Aurretik Euskal Herriko herrialdeetan izandako kanporaketetan sailkatutako artzain eta txakurrek lehiatuko dabe Gerediaga elkarteak antolatzen dauen txapelketaren berrogeita hirugarren edizinoan.

Euskal Herriko lurralde guztietako txapeldunak eta txapeldunordeak batuko dira euskal artzain-txakurrik onena erabakitzeko Axpen izango den lehiaketan parte hartzera. Arabako ordezkariak faltako dira aurten, herrialde horretan ez dabe eta txapelketarik burutu.

Goizeko 11:00etan hasiko da txapelketa, eta hegaluze dastaketa eta bertso-bazkaria izango dira ondoren

Axpeko Elizburuko zelaian, domekan, jokatu da Euskal Herriko berrogeita hirugarren Artzain-txakur Txapelketa

Domekan, irailaren 20an, Axpeko Elizburuko zelaian jardungo dabe artzainek eta txakurrek, bakotxak jagokon lana burutzen: txakurrari aginduak eta jarraibideak emoten artzainak, eta ardiak hesiratzen txakurrak.

Urteetan hitzordu hori antolatzen egin daben lana eskertzeko, Jose Luis Zarandona eta Jose Ignacio Alberdi omenduko ditu Gerediaga Elkarteak domekako ekitaldian. Eusko Labeldun hegaluzea dastatu ondoren, bertso-bazkaria izango da Atx-Azpi elkartean. ■ I.E.



Orozko Enrique Mendiguren eta Riki txakurra izan ziren igaz txapeldun. Judit Fernandez

gremioen koordinazioa

urtiaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigo
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

UNDARRI BIKE

Bizikleta salmenta eta konponketa.

Bidebarrieta, 5 - bajo
15215 TORRETA
94 681 78 08
www.undarribike.com
undarribike@undarribike.com

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta Industri mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatzauek eta abar

Goieto, 10 - 2.Esk. - ELORRIO
Tfn.: 682 09 91

goizeko 08:00etatik gabeko 21:00etara
zabalik

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

{ odontologia orokorra eta espezialitateak }
mruetatorre-bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

MOMOTXO
TABERNA

Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO



DURANGO



“ETAren sinboloak erakusteari” buruz Jaurlaritza eta Eudelen arteko ituna aitatu dau PSE-EEK.

“Jairik jai, A gripe berezia” zabaldu dela dino alkateak

“Mehatxu-ekintzak” baino ez ditue eragotziko, orain arte legez

Edukiak baino gehiago bes-telakoek hartu dabe garrantzia Sanfaustoetako jai egitarauari buruzko eztabaidan. Pre-soen argazkiekin sortutako tirabira dela-eta, “Gasteizko gobernua-ren kolore aldaketagaz, jairik jai gure A gripe berezia zabaldu” dela deritzo Aitziber Irigoras alkateak, eta epaileek zuzenbide legediaren interpretaziorik egin ez dabela-eta, udal ordenantza beteko dabela dino: “Igaz legez, mehatxu-ekintzak eragotziko dira”.

PPK “denondako” jaiak izan daitezten “borondate politikoa era-kustea” eskatu deutso Irigorasi: “Portaera askogaz minduta senti-titu gaitekez-eta terrorismoaren biktimok”. Ildo horretan, “ETAren sinboloak erakusteari buruz” Jaurlaritzaren eta Eudelen arteko ituna aitatu dau PSE-EEK: “Oso

garrantzitsua da borondate poli-tikoa, eta ezin dogu ordenantzara mugatu”. Natxo Martínez jaietako zinegotzi jeltzalearen berbetan, “zigorra betetzen dagoen preso baten argazkia, bera jaietan ez dagoela gogoratzeko baino ez da”.

“Jaiak ezin dira politizatu”

Aralarrek 96tik indarrean den arau-dia aitatu dau, “baldintza tekniko-sanitarioak, segurtasunezkoak eta sozialak jasotzen dituen”, eta Tal-de Mistoak jai “militarizaturik” ez dauela onartuko, jai “herrikoien” aldekoa dela berretsiz: “Jaiak ezin direla politizatu esan arren, zelan-baiteko mamua sortu gura da. Jaiak denontzat dira, esan ohi den legez, eta sentsibilitate asko dago, denak errespetagarriak”.

Jaietako segurtasunaren kar-gu egiteko enpresa pribatua har-

tu gura dabela-eta, PPK hori Udal-tzaingoaren lana dela be adierazo dau, eta txosnek horri aurre ez egi-tea “ulergatxa” dela, 14.800 euro-ko laguntza jasota. Horren aurrean 2007ko neurrien “arrakastagaitik” eta auzokoen berri eskatuta har-tu dabela erabakia esan dau alka-teak: “Udaltzaingoak ezin dau gune guztietan egon”. EB-Berdeek, ezbaian sartu barik, “azken urte-o-tako lan ildo” goratu dabe. ■ A. B.

PSE-EE: “Borondate politikoa oso garrantzitsua da; ezin dogu udal araudira mugatu”

Jaietan segurtasunaren kargu egiteko enpresa pribatua kontratatzea kritikatu dau PPK

Ekitaldiz jositako asteburua eratu dau Kondaira kultur elkarteak

Kondaira kultur elkarteak anto-latuta, hainbat rol jokotan jarduteko aukera izango da, astebu-ruan, Landako kiroldegian. Gaur hasi eta domekara bitartean, ludoteka ez eze, hainbat erakus-taldia eskainiko ditue antolatzaileek kirol azpiegiturako sotoan egokituko daben lekuan. Horre-zaz gain, txapelketak, Kondaira elkartearen afaria eta bakarrizke-ta be egongo dira, jakin eragin dabenez.

Informazio gehiago lortu gura dauenak elkartearen hona-ko webgunean sartzea baino ez dauka: www.acekondaira.org.

Jai-giroa nagusituko da asteburuan Goienkalen

Andra Maria Mesedetakoari ohorezko aureskua eskainiz hasiko ditue, gaur 20:00etan, jaiak

Goienkale jai giroan bustiko da datozen egunotan. Gaur hasiko dira jaiak, 20:00etan, Andra Maria Mesedetakoari ohorezko aureskua eskainiz, eta, ondoren, txarangak alaitutako poteoa hasiko da. Maria-txiak izango dira, 22:00etan.

Ohiko sardina jana eratu dabe, bihar, 13:00etan, Andra Marin; eta 17:00etan puzgarriendako lekua egokituko dabe. Mus txapelketa hasiko da, 16:00etan, eta, 19:30ean, poteo-herrikoia; aurretik, 18:00etan, txokolatea be banatu-ko dabe, udaletxearen aurrean.

Erromeriak agurtuko dau eguna. Harley topaketa izango da, dome-kan, 11:00etan eta, 13:15ean, Musi-ka Bandaren saioa. Ondoren, herri bazkaria eta modelismo erakus-keta. Hilaren 24an, jubilatuentzat bazkaria eta txarangak alaitutako poteoa be antolatu ditue. ■ A. B.

Herri-bazkariak, harley eta modelismo erakustaldiek, sardina-janak, erromeriek... osatzen dabe egitaraua

Euskarak leku gehiago izango dau andrendako jabekuntza eskoletan

Barrikuntzekin aurkeztuko ditue ikastaroak, irailaren 23an, 19:00etan, Andragunean

Orain arte izan ez dauen lekua hartuko dau, aurtan, euskarak Udaleko Aukera Bardintasun Sai-lak eta Andraguneak eraturako emakumeendako jabekuntza ikastaroetan. Era berean, ‘Osasu-na eta generoa’ lan ildo barriar-tu dabe. Aurrekoetan jardunda-koen proposamenak aintzat har-tuz egin da “ahalegin berezi” hori, hilaren 23an aurkeztuko den egi-taraua antolatzerakoan. Andra-gunean izango da, 19:00etan.

Euskarazko taldea osatu gura dabe “bardintasunaz eta feminismoaz jarduteko”

Euskarazko ikastaro eskaintza handitzeko “ahalegin berezia” egin ei dabe

Euskaraz emongo dira bost ikastaro: *Emakumeak mendian, Emakumeak eta Euskal Literatura, Bidaiatzeko 40 era, Jostailu erotikoen tailerra* eta *Zoru pel-bikoa indartzea*. Azken hori ‘Osa-suna eta generoa’ lan ildo horren barruan jasotzen da, *Biodanza, Alternativas al uso de compresas ytampones desechables* eta *Riso-terapia* ikastaroekin batera. Bes-talde, Berbaro elkartegaz lanean “bardintasunaz eta feminismoaz jardun eta kontzientzia hartze-ko” euskarazko taldea osatuko da.

Ipuin kontalaria

Martxan den Azaroak 25, *emakumeenganako indarkeriaren aurkako kontaketa laburrak eta olerkiak* lehiaketaren haritik, kan-paina hasi dabe eskoletan, eta, irailaren 22an, ipuin kontalariak jardungo dau, 20:00etan, San Agustin kultur gunean. ■ A.B.

OTXANDIO

Urteroko ohiturari eutsiz, otxandiarrek Basobisita egingo dabe domekan

08:00etan denek elkarregaz ekingo deutesie eta Gomilazera heltzean talde bitan banatuko dira

Iraileko hirugarren domeka da etzi eta, urteroko ohiturari eutsiz, herritar eta agintariek herriko mugarrak bisitatuko ditue. Goi-zeko 08:00etan ipini dabe hitzor-dua plazan.

Limitaduak Oletagaz muga egiten dau, eta bost kilometro karratu daukaz gitxi gorabehera

Plazatik irten eta Gomilazen talde bitan banatuko dira. Batzuk Aramaio gaz muga egiten dauen eremura abiatuko dira. Han dagoen lur zati baten eskudun-tzak eztabaidak sortu izan ditu. Otxandiarrek eta aramaioarrek bakotzak euren dela dinoe. Lur zati horrek Oletagaz muga egi-ten dau eta Amaitermineraino ailegatzan da; bost kilometro karratu daukaz, gitxi gorabehe-ra. Ohi dabenlegez, aizkoragaz

zonalde horretako zuhaitzak markatuko ditue, lur zati hori Otxandioarena dela adierazteko. Ondoren, talde biak Amaiterminen batuko dira. Hamaiketako egin eta Anteparaluzetik herri-gunera bueltatuko dira.

Aspaldiko auzia

Udalerrri osoa inguratu ondoren, akta-liburuan Otxandio muga mugen barri jaso ohi dabe. Limi-taduaren auzibidea aspaldikoa da. 1557an Otxandiori horren jabetza aintzatetsi eutsen, eta 1664tik aurrera herriko mugak egiaztatzeari ekin eutsien eta gaur egun usadioari eusten de-utesie. Arartekoak Limitadua bitan banatzea proposatu eban. ■ J.D.

1557an aintzatetsi eutsien Limitaduaren jabetza Otxandiori; 1664az geroztik mugak egiaztatzen ditue

IURRETA

Anderebide lurretako emakumeen elkarteak aurkeztu eben, martitzenean, Ibarretxe kultur etxean. Izaera sozio-kulturala eta helburu nagusi bi daukaz: emakumeen garapen integrala bultzatzea eta gizarte erakundeetan emakumeen zuzeneko parte-hartze aktiboa sustatzea. Oraingoan, 70 bazkide dira –adin guztietakoak– eta Goiuria kultur-gunean daukie lokala, beste elkarte batzuekin partekatuko dabena.

Ana Maria Urkidi lehendakariak elkarte sortzeko asmoa zelan emon zen gogoratu eban: “Jabe-kuntza ikastaroan parte hartu genduenetako batzuek, beren beregi emakumeen alde lan egingo leuken elkarte baten falta somatu genduen. Han hasi ginenak gara orain juntan gagozenak”.

Elkarteko irudiak markatu daben bidea islatzen dau: Sasoi bateko euskal emakumea, liho finezko kapelua buruan daukala; Inkisizinoak galarazo egin eban jantziluzuna zela argudiatuta. “Iraganen oinarritutako logoa da, baina etorkizunera zabalik dagoena; irudi gaztea, dinamikoa eta aldarrikatzailea”.

Elkartea dagoeneko hasi da ekitaldiak prestatzen. Bihar Balmasedako Txapelen Museoa bisitatuko dabe, eta urriaren leian, Sanmigeletan, *Cruzas Cotidianas* izeneko monologia eskainiko dau Cristina Castilok. ■ J.D.

Emakumeen alde lan egiteko sortu dabe Anderebide

70 bazkide dira elkarteak, eta Goiuria kultur-gunean daukie lokala



Ibarretxe kultur etxeko areto nagusian aurkeztu eben emakumeen elkarteak. Iban Gorri

GARAI

Auzoko dantzarien saioa Santa Katalina ermitako jaian

Domeka honetan ospatuko dabe Santa Katalina ermitako jaia. Goizean izango dira ekitaldiak, eta auzoko dantzariak saioa eskainiko dabe, besteak beste.

Goizeko 10:30ean hasiko da eguna, mezagaz batera. Garain domeketan izan ohi den elizkizuna ermitara eroango dabe oraingo honetan. Ondoren, auzokideek bakarrik osaturiko dantza taldearen txanda izango da; saio berezia, zalantza barik. Eguerdian luntxa be prestatuko dabe jai giroan jarraitzeko.

Ermita ingurua “garbitu barri dago, jairako txukun eta egokituta”, antolatzaileen arabera. Bertara joateko gobidapena luzatu dabe. ■ M.O.

Eguerdian, luntxa be prestatuko dabe jai-giroagaz jarraitzeko

Ermita ingurua “garbitu barri dago, jairako txukun eta egokituta”

BERRIZ

Auzobideetako arekak hormigoiz indartuko ditue

Lau laguneko taldea ibiliko da zeregin horretan; hiru hilabetez lanaldi osoan jardungo dabe

Hileon hasi eta hiru hilabetez, lau laguneko brigada batek auzobideetako arekak garbitu eta hormigoiz indartuko ditu, urak hobeto batzeko eta bideratzeko. Hileok ez dira nahikoak lan guztiak burutzeko, baina negua ez da urtaro aproposalan horreerarako, eta egiteko falta dena aurreragoko itziko dabe.

Era berean, hiru laguneko beste brigada batek herriko azpiegituren egoera aztertuko dau, eta behar den tokietan konponketak burutu: apurtutako lauzak aldatuz, kale-argiak konponduz... Bes-

etik, identifikatutako sinbolo frankistak eta iragarki-tauletatik kanpora dagoen kartelak kendu eta hormetako graffiti batzuk garbituko ditue, besteak beste.

Lau langile Udalaren diruagaz kontratatuko ditue. Beste hiruen zati bat INEM korporaziotik jasotako diru-laguntzagaz ordainduko dabe; falta dena Udalak ipiniko dau. Langileek lanaldi osoa jardungo dabe. Horrela, Udalak helburu bi bete gura ditu: herriko preminak betetzea eta lana sortuz krisiari aurre egitea. ■ J.D.

Jente asko batu zen irailaren 11ko gomuta egunean

Joan zen barikuan frankismoak hildako berriztarrak gogoratu zituen. Oroimenaren Bidean lore-eskaintza eginda, afari merienda egin eben Erralderen eskutik. Ondoren, Durangoko Orfeoia kontzertua eskaini eban, 100 bat lagunengain.

Arratsaldean, Nafarroako Gerónimo de Ustariz Institutuak antolatutako erakusketa zabaldu eben Kultur Etxean. Frankistek lan bortxatuen esparrua eduki eben Bidankoze herrian, eta 10 berriztar egon ziren han. Horren gaineko ikus-entzunezkoa be erakutsi eban Nafarroako elkarteak. ■ J.D.



GALLASTEGI
gallastegiharategiak@euskalnet.net
1955 ean sortua

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

MINKENDU

MASAJEA, AKUPUNTURA
(orratz gabe ere) ETA
MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • HIDROLINFA

Alberto Murua
Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO
tf. 662 270 770



20 urte

euskaraz
bizitzeko aukerak
sortzen

**BAZKARIRAKO
TXARTEL
GUZTIAK SALDUTA**

eskerrik asko!

Antolatzailea



Laguntzaileak



ELORRIO

Urtea joan aurretik onartu gura dabe auzo-kontseilua gidatzeko araudia

Estatutuak onartuta, auzo bakotxean alkateak aukeratzeko hauteskundeak egitea da asmoa

Auzoen eta herrigunearen arteko hartu-emona bizi-tzeko eta auzoetako beharizanei irtenbide azkarragoa, parekatuagoa eta orekatuagoa emon guran, auzo kontseilua sortuko dabe. Kontseilua auzo bakotzeko auzo-alkateek, Elorriko alkateak eta alderdi bakotzeko zinegotzi banak osatuko dabe. Auzoko edozein izan daiteke kontseiluko partaide, baina boto eskubide barik.

Asmoa bideratzeko auzo batzordeak hainbat batzar egin ditu auzo bakotzeko ordezkari-ekin; azkena martitzenean. Dagoeneko estatutuak gorpuztu samartuta dagoz. Proposamen hori udalbatzarrek onartu beharko dau. Ondoren, auzo bakotzeko alkateak onartzeko prozesua hasiko dabe.

Kontsultiboa izango da kontseilua; proposamenak udalbatzarrek onartuko ditu

Jose Garaizabal zinegotziaren esanetan, "dena bide onetik doa, eta urtea amaitu aurretik estatutuak udalbatzarrera eroatea da gure asmoa". Auzo-kontseiluak izaera kontsultiboa edukiko dau. Auzo-alkateek boto eskubidea izango dabe -alderdi politikoko kideek, ordea, ez-eta han gehien-oz onartutakoa udalbatzarrean tratatuko dabe. Beti be, plenoak izango dau azkeneko erabakia.

Alkateak zelan aukeratu

Elorrioren 15 auzo dagoz eta bakotzeko auzo-alkatea zelan aukeratu erabakitzen dabilz. Hasikeran, herriguneko pilotalekuan egin gura zitueen hauteskundeak, baina azkenean auzo bakotxean burutuko ditue. Oraindino datak erabakitzeko dagoz. Erabakita dagozenean, Udalak buzoiz buzoiz emongo dau horren barri.

Gaur egun, Elorriko biztanleriaren %10 bizi da auzoetan: 7.000tik 700 inguru. ■ J.D.

MALLABIA

Domekan txoko-batzokia inauguratuko dabe

Andoni Ortuzar Bizkai Buru Batzarreko lehendakariak parte hartuko dau ekitaldian

Etzi, 12:00etan, txoko-batzokia inauguratuko dabe Mallabian. Irekiera ekitaldian Andoni Ortuzar Bizkai Buru Batzarreko lehendakariak parte hartuko dau. Jakinarazo dabenez, Euskal Herriko lehengo txoko-batzokia izango da bihar zabalduko dabena.

Mallabikoa Euskal Herrian zabalduko daben lehengo txoko-batzokia izango dela jakinarazo dabe

Kirola, bertsoak, bazkaria eta musika nagusi Gazte Egunean



Joan zen zapatuan Gazte Eguna ospatu eben herrian. Pala partiduan Urtzi eta Jon berriatuarrak izan ziren garaile, eta eskuz, barriz, Ander eta Ibai mallabitarrak. Bertso bazkariaren ondoren egindako Miss eta Mister lehiaketa Esti Arrizabalaga eta Koldo Pradera kirabazi eben. Arratsaldean bertso-poteoa egin eben. Kontzertuaren ondoko erromeria herrian zehar, kalez kale egitea erabaki eben. ■ P.M.

Lokala Intxaurti kaleko 8. zenbakian dago. Helburua jentea batzeko eta bertan egoteko gune erakargarria sortzea da. Taberna batetik harago, bestelako ekimenak garatzeko gune aktibo be izan daiten gura dabe, adierazi dabenez.

Txoko-batzokiaren egiturari jagokonez, 25 lagunendako mahaiak izango ditu, bazkaritara zein afaritara batu gura dabenedako. Gestinoak egiteko ofizina dauka, eta baita erabilgarri egongo diren ordenagailu bi be. Horrez gainera, telebista bi be izango ditueela azaldu dabe. ■ J.D.

MAÑARIA

Aita Kurutzeko eguna ospatzeko gonbita irailaren 20ko domekarako

Irailaren 20an, domekan, egingo dabe ohiturak agintzen dauen ibilaldia hainbat mañariarrek Aita Kurutzeko ermitara. Herrian ohi-turazkoa den eguna ospatzeko, urteroko egitaraua izango dabe: goizeko 11:00etan meza, ondoren dantzarien emanaldia eta hamaiketako eskainiko deutsee bertaraten diren herritarrei.

Askorentzat hutsik egin ezinena den txangoa da domekako, eta Mañaria eta Dimako herritarrek batuko dira urtero legez baselizan. Gaur Aita Kurutzeko ermitan igaroko duenik be egongo da, segurutik. ■ I.E.

ZALDIBAR

Ikusmin handia eragin eban Euskadiko Western Lehiaketak

Zapatu eta domekan Zaldibarren jokatu eben Euskadiko Western Lehiaketa

Bakarkako *Cattle Penning* izeneko lehiaketa 27 jinetek eta *Team Penning* lehiaketa 30 hirukotek hartu eben parte. Araquistain aita-semeek eta Jaume Torres zaldizkoek osatutako taldeak irabazi eban taldeka. Hain zuzen be,

bakarkako lehiaketa be bigarren postua egin eban Juan Araquistain zaldizkoak, Arturo izeneko irabazlearen atzetik sailkatuta.

Lehiaketako parte-hartzaileen artean -eta joan zen asteburuan Zaldibarren aurkeztu eben

Euskadiko Western elkarte sortu barrian be bai-hainbat kide dagoz Durangaldekoak. Euren elkarte aurkezteko aukera aprobetxatu eben joan zen asteburuan, eta contry jaialdiak, bazkaria eta aforiak egin zitueen Zaldibarren. ■ I.E.



Euskal Western elkarte sortu barria aurkeztu eben asteburuko hitzorduan. Judit Fernandez

Langile euskaldunen zerrenda, eskura Udaletxean

Ume zein adinekoak zaintzeko eta eskolaz kanpoko klase partikularrak emoteko euren burua eskaintzen daben lagun zerrenda ipini dabe Udaletxean eskuragarri: zerbitzu horreeuskaraz eskaini ahal dituen herritar euskaldunen zerrenda. Udaletxera bertarata, telefonoz edo eguen@zaldibar.org helbidean eskatu leiteke informazioa.

Kirol edo aisialdi begiraleen edo eskolaz kanpoko klase partikularren preminan dagozenedako aukeran, langile euskaldunen zerrenda be eskura dago.

Adinekoak zaintzeko prest dagozen 10 lagun, 17 umezain, 6 kirol begirale, aisialdi 15 begirale eta irakasle bi dira, guztira.

Udaletxera bertarata, telefonoz zein internetez eskatu leiteke informazioa

Umeak eta pertsona nagusiak zaintzeko prest dagozenak 27 lagun dira

IZURTZA

EAJ Hirigintza Hitzarmena sinatzearen kontra agertu da

Ezker abertzaleko Gobernu Taldeak babeseko etxebizitzak eraikitzeo egitasmoari jagokonez izandako jarrera gogor kritikatu eta herrian babeseko 15 etxebizitzak eraikitzeo beharrezko den Hirigintza Hitzarmena sinatzearen kontra agertu ziren, barikuko udalbatzarrean, jeltzaleak.

Aurreko legegintzaldietan be babeseko etxebizitzak eraikitzeo egitasmoa bazegoela dinoe jeltzaleak

Gobernuak babes sozialeko etxebizitzak "lehenengoz" egingo dituela zabaldu izana "gezurra" dela nabarmendu dabe jeltzaleak, euren web gunean publikatutako idatzian. Aurreko legegintzaldietan be babeseko etxebizitzak eraikitzeo egitasmoa izan dela dinoe.

Gobernu Taldearen gehien-goagaz onartu eben, beraz, gazte lokalaren parean dagoen lursailean babes sozialeko etxebizitzak eraikitzea ahalbidetuko dauen hitzarmena. ■ I.E.



ABADIÑO



Lehenago Carrocerias Hirurok zegoen lokala alokatu dabe Axura elkarteko kideek. J.D.

Lokal barri eta handiagora joateko dira Axura elkartekoak

Matienako Trañabarren kalean zeukien lokala txiki geratu jakela dinoe

Orain zazpi urte, Durangaldeko komunitate musulmanaren elkargune bihurtuko zen lokala zabaldu eben Matienan (Trañabarren 9an). Handik urte bira, beharrezko tramite guztiak beteta, lokala gestionatuko eta gidatuko eban Comunidad Axura elkarte islamiar-kulturala sortu eben. Harrezkero, hantxe batu izan dira. Baina apurka-apurka, urtea joan eta urtea etorri, eskualdeko musulman islamiarren kopuruak gora egiteagaz batera, lokala txiki geratu jake. Hainbat toki begiratu ondoren, Matie-

nan bertan aurkitu dabe espazio handiagoa (400 metro karratu) eta apartatua: lehenago Carrocerias Hirurok zegoen lokala; Muebles Atadi-ren gainaldean.

Arrazoi nagusi bi

Khalid Najid Comunidad Axura-ko kideak dinonez, arrazoi nagusi bi egon dira tokiz aldatzeko: "Lokala zabaldu zanean hamar lagun batzen ginen. Orain, askoz gehiago gara, eta lokala txiki geratu jaku. Bestalde, bizilagunak ahalik eta gixien molestatu gura doguz. Lokal barria arazo bie irtenbidea emo-

teko aproposa da". Oraindino lokala egokitzen dabilz -urtea amaitu aurretik prest izan gura dabe-, baina Ramadanaren amaierako jaia bertan ospatuko dabe, domekan edo astelehenean. Baraurik emondako hilea hamargarren hileko lehen egunean amaitzen da. Domekan ilgora ikusten badabe, orduantxe amaituko da. Ikusi ezean, Ramadana egun bete luzatuko dabe, astelehenera arte.

Igaz Durangoko merkatu plazan 200 lagunetik gora batu ziren amaiera festan. Aurten lokal barrian ospatuko dabe. ■ J.D.

Egañak eta Maiak girotuko dabe, bihar, Aita Kurutzeko jaietako bertso afaria

Jaietako Mozorro Eguna da bihar, iralaren 19an, eta bertso afaria dago 21:30erako antolatua

Joan zen domeka izan dabe Aita Kurutzeko jaien lehenengo eguna, eta domeka honetan, etzi, da jaien amaiera. Tortilla lehiaketa bategaz emongo deutsee jaietako bukaera. Horren aurretik, baina, gaurko eta biharko hainbat ekimen proposatu deuskuz Aitte

Ohiturazko "pijama eta kamisoi" eguna antolatu dau gaurko Aita Kurutzeko jaietako jai batzordeak

Kurutzeko jai batzordeak. Bihar iluntzean, 19:30ean, gazte asanbladak antolatutako poteoa eta, ondoren, aukeran dogu Andoni Egaña eta Jon Maia bertsolariekin bertso afaria, 21:30ean Ferialekuan. Domekan, umeendako pentsatutako pailazoan emanaldia: Potxin eta Patxin pailazoan emanaldia 18:00etan izango da.

Gaur, ohiturazko "pijama eta kamisoi" eguna da Aita Kurutzeko jaien harira. Poteoagaz hasiko ditue asteburuko ekitaldiak; 19:00etatik aurrera izango da hori. Gero, 20:30ean parrillada egingo dabe Ferialeku plazan, eta Lotxo taldearen erromeriaren ondoren txokolatea bizkotxoekin dastatuta amaituko dabe eguna. ■ I.E.

DURANGO

Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egin guran

Durangoko Udaleko Berdintasun Sailak eta Udaleko Berdintasunerako Kontseiluak, + *Dendak* eta Durangon Bai elkarten bultzadagaz, eguen guztietako emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko elkarretaratzeetan parte hartzera gonbidatu ditue Durangoko zein eskualdeko herritar guztiak.

Hasi barri dogun ikasturte honetan be, astero-astero, Durangoko Andra Mariko elizpean batuko dira emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko helburuagaz kontzentrazioan batzeko hautua egiten daben herritarrak. Eguenetan 20:00etan izaten da Andra Marian emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko gunea eta unea.

Alzheimerren Munduko Egunean, antzerki ikuskizuna

La Papa antzerki taldeak sortu eta antzeztutako *Recordando a los que olvidan* ikuskizuna ikusteko aukera izango dugu, irailaren 21ean, Plateruena kafe antzokian. Alzheimerren Munduko Egunagaz bat eginda antolatatu dau ikuskizuna Durangaldeko Mankomunitateko Nagusien Sailak, Durangoko Udalagaz batera. Hiru zatitan banatutako antzerki-jokoan, gaixotasunari eta horren garapenari buruzko hainbat atal aitatu eta dementzia daukan pertsona bat zaintzeak dakarzen ondorioak aztertuko ditue; 11:00etan hasiko da antzezpene. Ondoren, solasaldia egingo dabe bertaratuko direnek.

OTXANDIO

Karta-jokalarien txapelketa



Tute, briska eta mus txapelketa jokatuko dabe, datozen asteetan, Pasealeku jubilatuen elkarteak antolatzen dauen karta-joko txapelketan izena emoten daben lagunek. Asteleheneetik aurrera lehiatuko dira; tutean hamar, briskan bederatzi eta musean sei bikote. Azarorako Udalak eta Pasealeku elkartearen artean antolatuko daben bazkariagaz eta ondorengo sari banaketagaz emongo dabe aurtengo txapelketa amaitutzat.

DURANGALDEA

Autobus teknologikoa bisitan

Sei eguneko bisita hasiko dau gaur, Durangaldean, Euskaltelen Bus Teknologikoak. Dinazima TIC Rural egitasmoaren eskutik —Urkiola Landa Garapenerako Elkarteak eta Euskaltelek antolatuta—, Zaldibarren egongo da gaur, eta hilaren 21etik 25era, hurrenez hurren, Berriz, Mallabia, Euba (Zornotza), Atxondo eta Elorrioren; 10:30etik 13:30era eta 16:30etik 19:00etara. Autobusak 15 ordenagailu daukaz, 3G motako Internet konexioagaz.



IZURTZAKO JAIAK 09



Argazkiak: Iban Gorriti



Argazkiak: Joseba Derteano

BERBAZ >

“Palestina osoa kartzela handi bat da; genozidioa da han egiten dabilzena”

Aitor Beobide historia irakasleak abuztuan Palestinan bizitakoaren barri emon deusku.



Iban Gorriti

Aitor Beobide •

▪ Historia irakaslea

▪ 30 urte

Palestinan bizi daben egoera ezagutzera joan zen, abuztuan, Askapenagaz brigadista legez. Itzuleran, bertan ikusitakoa kontatzea dau helburu Aitor Beobide iurretarrak. Palestinar herriaren egoera latza den arren, ezagutu dauen jentearen esku zabaltasuna nabarmendu gura izan dau irakasleak.

Zergaitik Palestina?

Urrun egon arren, Palestina beti sentitu dot gertu. Herrialde hori ezagutu gura izan dot betidanik, eta uda honetan brigadista moduan aukera hori izan dot.

Zelako esperientzia izan da?

Arabiar mundura egin dodan lehenengo bidaia oso positiboa izan da. Palestinarrek transmititzen daben indarra jaso dot. Bizitza osoan umiliatu egin ditue. Etxeak bota egiten deutseez. Birrintzen dabilzen herria da. Halan be, herri hori berriro eraikitzeke ilusinoa daukie. Ez dogu ezagutu kartzelatik pasatu ez den edo familian hildakorik ez dauka-

nik. Giro horretan, oso jente abegitsua topatu dogu.

Zer helburuz egin dozue bidaia hori?

Palestinan bizi daben egoera bertatik bertara ezagutu gura izan dogu, bertan bizitakoa Euskal Herrian kontatzeko.

Nazinoartean zer jarrera dago?

Egitekotan oso estatu gitxik egiten dabe zeozer. Gainera-

gehiagok sinatu dabe. Datoren urtean brigada kulturala egingo dabe dantzari eta musikariekin. Nazinoarte mailan palestinarek elkartasunera ko deia egin dabe. Israelen presentzia eta hartu-emonak etetea eskatzen dabe (boikot), eta palestinari idazle, kazetari eta kirolariekin hartu-emonak mantentzea. Hegoafrikako adibidea jarraitu gura dabe.

“Paslestinaren aldeko manifestua 200 talde baino gehiagok sinatu dabe. Euskal Herritik brigada kulturala abiatuko da Palestinara datorren udan”

koek beste alde batera begiratzin dabe. Palestinar gehienak bake akordioen kontra dagoz, estaturik ez daukielako eta inoiz baino kolono gehiago daukiezelako.

Hainbat taldek elkartasuna adierazo deutso Palestinari.

Euskal Herria Palestinarekin elkartasunez manifestua sortu dabe, eta 200 talde baino

Zein da palestinaren egoera?

Genozidioa egiten dabilz. Palestina osoa kartzela handi bat da. Israelen asmoa Palestinako lurrekin geratzea da. Harresiz eta ‘check pointez’ beteta dago, eta gune baxotxa kartzela bat da. Arazoren bat sortzen denean denak ixten ditue. Gazara sartzen ahalegin du ginen, baina ez geunkan barrura sartzen izteko aukera

handirik. Ez ginen bertara sartzen saiatu be egin.

Zer giro topatu zenuen?

Palestinarek esan euskuenez, han ez dago bakerik, baina “aro lasaiak” ditue. Abuztuan “lasaitasun tentsoa” zegoela esan euskuen.

Bilinen izan zinien.

Bai, egunero eguerdiko 13:00etan Bilinen Palestinaren alde egiten daben manifestazinora joan ginen. Gas lakrimogenoa bota euskuen.

Tel Aviveko aireportuan arazoak izan zenuen.

Sei lagun joan ginen hemendik, eta heltzeagaz batera gutariko bi, abokatuak zirenez, etxera bidali zitueen. Itzuleran erretenu egin ninduen neube, eta interogatu be bai.

“Gazara sartzen saiatu be ez ginen egin; ez geunkan aukera handirik”

“Une honetan lasaitasun tentsoan bizi direla esan deuskue”

Cisjordania ezagutu dozue.

Cisjordanian 400 mila kolono dagoz. Kolonia gehiago egiten ez ditueen arren, dagozenak handitzen dabilzela ikusi dogu. Gainera, koloniak baliabide gehien daukiezen lurraldeetan egin ditue.

Bidaia honetan auzolanaean jarduteko denpora izan dozue.

Gizon palestinari bati bere lurra birrintu eutsezen, eta talde bat batu ginen konpon-tzen laguntzeko.

Beste bidaiarik egin izan dozu brigadista.

1998an Kuba aldera joan nintzen. Herrialde horri buruz asko irakurri neban, eta bertatik bertara ezagutzeko gogo neukan. Venezuelara 2001ean joan nintzen, estatu kolpea gertatu baino urtebete lehenago. ■ Jone Guenetxea

EKONOMIA[>]

>ABADIÑO

Rothenbergerreko langileak kaleratzeen kontra protestan

Bi orduko lanuztea egin eben eguaztenean, eta kaleratu batek protesta ekintza jarri dau martxan

Uztailaren amaieran Rothenberger enpresan kaleratutako behargin batek protesta ekintza jarri dau martxan. Enpresako zuzendaritzak kaleratutako langilea berriz hartu arte, kanping dendan enpresaren ondoan akanpatuko egongo dela jakitera emon dabe sindikatuek. Beharginak eguaztenean ekin eutsan protestari. Rothenbergerreko gainerako beharginek, lankideari elkartasuna adierazo guran, eguaztenean txanda bakotxean ordu biko lanuztea egiten dihardue.

Enpresa komiteak eta lankideek kaleratutako langileari elkartasuna adierazo deusie

Segurtasun neurriak jarri arte, lanik barik Secor enpresan

Abadiñoko Secor enpresako beharginek segurtasun neurriak jarri arte lanera ez direla itzuliko erabaki dabe. Joan zen eguaztenean enpresa horretan lanean ziharduen 36 urteko behargin bat bobina batek harrapatuta hil zen. Lan-ikuskaritzako delegatuak, astelehenean inspektzioa egitera joan zenean, segurtasun neurriak jartzeko agindua emon eba-

Uztailean kaleratuak
Udako oporrak baino egun bi lehenago Rothenbergerreko zuzendaritzak bost behargin kaleratu zituen (Gasteizko lantokiko bat eta Abadiñoko lantokiko lau). Uztaileko azken lan egunetan mobilizazioak egin zituen "kaleratzeak gaitzesteko".

Abadiñoko lantokiko hiru beharginek enpresak eskaintako kalte-ordaina onartu eben. Langile batek, baina, ez dau akordio hori onartu. Uda ondoren Rothenbergerreko langileak asanbladan batu ziren, kaleratutakoak berriz hartzea eskatzeko zein neurri hartu leikien aztertzeko. Eguaztenean martxan jarritako mobilizazioak egitea erabaki eben.

Enpresa komiteak jakitera emon dauenez, kaleratzea atzera botatzea "exijitzen" dabe, eta helburua lortu arte eguaztenean mobilizazioekin jarraituko dabela azaldu dabe. ■ J.G.

la azaldu dau CCOO. Oraingoan, bulegoko langileek bakarrik dihardueela lanean jakinarazi dabe.

Sindikatuak salatu dabenez, "enpresa horren moduan beste askok dihardue, baina inork ez dau ezer egiten". Gaineratu dabenez, inspektzio "gehiago" eta azterketa "zorrotzagoak" egin beharko litzatekez. ■ J.G.

Lan-ikuskaritzako delegatuak segurtasun neurriak jartzeko agindua emon deutso Secor enpresari



Kaleratutako langileak enpresa ondoan akanpatu dau. Iban Gorriti

>ATXONDO

Kaleratutako langilea hartu dabe Fuchosan

Enpresak langileen eskaerak onartu ditu eta greba deialdia bertan behera itzi dabe beharginek

Irailaren 9rako deituta zegoen greba mugabakorako deialdia bertan behaera itzi dabe Fuchosako beharginek. Grebaren aurreko egunean enpresaren zuzendaritzak langileen aldarrikapenak onartu dituela azaldu dabe sindikatuek; ELA, LAB eta CCOO daukie ordezkartza. "Kaleratutako langilea berriro hartzea eta zuzendaritzak 2008ko azaroan hartutako konpromisoak idatziz sinatzea izan da adostutakoa", azaldu dabe ELA sindikatuek.

Aurrekariak

Fuchosako langileak eta zuzendaritzak 2008ko azaroan erregulazio-espedita onartzeko akordio

2008ko azaroan hartutako konpromisoak beteko dituela dino zuzendaritzak

batera heldu ziren, baita hurrengo erregulaziorako be. Sindikatuek dinoenez, uztailekoa heldu zenean "adostutakoa ez ebela beteko" jakinarazo eutseen. ■ J.G.

kolaborazioa



Augusto Uriarte Behargintza

Ahalegina egin... Puf!

Gauzak aldatzen ari dira, eta ondorio horretara heltzeko ez dut ahalegin handirik egin behar izan. Lehenago elkartasunari buruz egiten zen berba, eta orain ez da aipatzen.

Agintari politikoek ahalegina eskatzen digute, bizi dugun egoera ekonomikoa kontuan izanik. Ez dute argitzen ez zertan ez non egin behar dugun ahalegin hori, baina ulertu uste dut gutxiago kobratzeko prest egotea ari zaizkigula eskatzen.

Eta ahaleginaren kontu hori asmatu dutenez, ea lehenago, dena ondo zihoakienean, zergatik ez zuten eskuzabaltasunaz hitz egitea asmatu galdetzen diot nire buruari. Eraitza onei buruz baino ez ziren aritzen; irabaziez eta aberastasunaz. Nik ez nien inoiz ezer entzun banatzeari buruz, eta ulertzen diet ez egin izana, baina orain guri ahalegin eske etortzea ez dut gustuko.

Egoera honen zergatia ikusteko interesik ez dutela dirudi; gutxiago oraindik horretan duten ardura

Beti entzun dut hartzeko eman egin behar dela. Are arlo ekonomikotik harago ere, ez dut zalantzarik horrela dela sentimenduen zein familia munduan ere. Eta ni horretan ahalegintzen naiz egunerok.

Agintariak guri ahalegina eskatzeak ez dit grazirik egiten, egoera honen zergatia ikusteko interesik ez daukatela dirudielako, eta gutxiago oraindik eurek horretan daukaten ardura. Higiezin burbuilaz hitz egiten zigutenak eurak direla oroitzea baino ez da behar, 'pelotazo'-aren kulturaz, etcetera (Mikel Laboak zioen moduan).

Nik ahaleginduko naizela ziurtatu dezaket, baina maite ditudan eta nauten pertsonekin. Ziurtatzen dut topera egingo dudala Behobia-Donostia, nirekin lasterka egingo duenarekin elkarbanatzeko ilusio itzela dudalako.

Baina gutxiago kobratzeari dagokionez, horretara etsi beharko dut, baina ez dut ahaleginik egingo. Horixe bakarrik behar genuen!

Industrias tey

Trataera Termiko Berezia eta Consulting - Tekniko-Metalurgikoa

ALTZAIRU LASTERREAN

Polg. Ind. ARTIA - 48291 ATXONDO - Bizkaia - Tel.: 94 621 55 90 - Faxa.: 94 620 23 70
E-mail: ind_tey@infoegocio.com - www.infoegocio.com/industriastey

EXCAVACIONES JON

MONTAJE Y MANTENIMIENTO DE MAQUINARIA

Jon Garitagoitia Gallastegui

PROYECTOS DE OBRAS DE TIERRA - MONTAJE Y MANTENIMIENTO DE MAQUINARIA

TEL. 946 17 26 00 FAX 946 17 26 00

KULTURA[>]



Argazkia: Ana Dominguez

ARTEA > ERAKUSKETA

Emakume durangarren artelan erakusketa

Pinturan, argazkigintzan zein eskulturgintzan jarduten duten eta Durangon bizi diren 21 emakumeren artelanak bildu dituzte Ezkurdiko udal aretoko Andra Artean erakusketan. Irailaren 27ra arte izango dituzte zabalik aretoko ateak.

Durangoko Udaleko Berdintasun eta Kultura sailek bultzatu eta Elena Solatxi artista durangarrak koordinatu du martitzenean zabaldu zuten erakusketa.

Erakusketan parte hartu gura luketen emakume durangar guztiek euren lanak aurkeztu zituzten deialdia egin zuten uda hasieran, eta epaimahai batek aukeratu du artista bakoitzaren zer lanek osatuko duten erakusketa.

Argazki, pintura zein eskultura lanen bildumaz gainera, erakusketarako apropos ikusi dute artearen historiari buruz Elena Solatxik prestatu duen sintesia: emakumeek artearen historian izan duten parte hartzea laburtzen da bertan, eta erakusketari dagokion testuingurua ematen zaio.

Artista durangarrek egindako artelanek markatzen duten ibilbidea jarraituta, emakumeek sortutako arteari buruzko bibliografia eta berau eroso begiratzeko sofa ipini dute amaieran.

Eskultura bat eta argazki bat, baina, batez ere, adin guztietako emakume durangarrek eginiko pinturak dira iraileko erakusketarako bildu dituztenak. ■ I.E.

Elena Solatxik koordinatu du erakusketa

12 San Agustingo hiruhilekoa

Eguazten honetan aurkeztu dute datozen hiru hilabeteetan Durangoko San Agustin aretoa beteko duen kultur eskaintza berria.



13

AIKO: Platerueneko dantzaldia

Sabin Bikandi, AIKO dantza taldearen sortzaile eta taldeko txistu-jotzailea denagaz egin dugu dantza ikasturte berriari buruz berba.

ANTZERKIA > PROGRAMAZIOA

Irail, urri, azaro eta abendura-ko Durangoko San Agustin kulturgunean prestatu dituzten 16 ikuskizunen berri eman zuten, eguaztenean, Mari Jose Balier zinegotziak, Arantza Arrazola antzokiko programazio arduradunak eta euren lana San Agustinen estreinatuko duten La Papa antzerki taldeko kideek.

“Egitarau zabal, aberats eta kalitatekoa” osatu dutela nabarmendu zuen Balier zinegotziak, eta hiru ikuskizun San Agustinen estreinatuko dituztela Euskal Herrian lehenengoz, urteko azkeneko hiruhilekoan: Jose Ramon Soroiz eta Joseba Apaolaza aktoreek urriaren 15ean egingo duten *Aitarekin Bidaian* eta Glu Glu ekoiztetxearen *Anbotoko Mari eta orrazi galdua* dira horietako bi.

Soiltasunez

Irailan bertan izango da San Agustingo hirugarren estreinaldia: Durangoko La Papa antzerki taldearen *Rosas Rojas* antzezlan. Irailaren 26an, 20:00etan, aurkeztuko dute Ricardo Combi zuzendari eta idazleak eta antzezlaneko hiru aktoreek azken bi urteetan lantzen jardun duten lana.

Bikote baten maitasun istorioa tratu txarren zuloan zelan jausten den erakusten du antzezlanak, Combi zuzendariaren ber-

Irail, urri, azaro eta abenduan 16 lan eskainiko dituzte

San Agustingo urte amaierara arteko agendako estreinaldiak

Durangoko La Papa taldearen ‘Rosas Rojas’, Hika Teatroaren ‘Aitarekin bidaian’ eta Glu Glu-ren ‘Anbotoko Mari eta orrazi galdua’ estreinakoz

betan, “tratu txar psikologiko zein fisikoak gertatzeko, harreman batean agertzen diren argi gorriak sumatzen joan dadila ikuslea, eta arazo sozial horri buruz gogoeta egin dezala lortu” nahi dute *Rosas Rojas* lanaren bitartez. Gainera, lehenago Geroa antzerki taldean elkarrekin aritutako Rosa Marti-

Martinez-Alcocer eta Asua aktoreak berriro elkartuko dira oholtzan

nez-Alcocer eta Izaskun Asua aktoreak berriro oholtza berean ikusteko aukera ere bada Irailaren 26ko San Agustingo emanaldia. Halako gai korapilatsua “soiltasunez” landu eta idazteko Combi zuzendariaren gaitasuna nabarmendu dute antzezlaneko protagonista diren biek. ■ I.E.



La Papa antzerki taldeko bost kide izan ziren ‘Rosas Rojas’ lanaren aurkezpenean. I.E.

ZINEMA > EMANALDIA

Herri indigenen zinema emanaldia Plateruenean

Mugarik Gabe Gobernu Kanpoko Erakundeak sustatzen duen zinema emanaldian, martxoan aurkeztutako ekoizpenak emanango dituzte, irailaren 22an eta 23an, Durangoko Plateruenean.

Irailaren 22an, 23an eta 24an dira Platerueneko filme emanaldiak

Zure Vision Social Vision jaialdian aurkeztutako Venezuela, Kuba, Iran, Frantzia eta Espainian ekoiztutako lanak erakutsiko dituzte, datorren martitzen eta eguaztenean, 20:00etatik aurrera, eta doako sarreragaz.

Mugarik Gabe erakundeak antolatutako zinema mostraren martitzeneko eta eguazteneko emanaldi bien ondoren, irailaren 24ko hitzaldiaz itxiko dute aurtengo edizioa. ■ I.E.

DANTZA > JAIALDIA

Nazioarteko folkloreagaz hitzordua, gaur, Durangon

Gaur arte, irailaren 18ra arte, atzeratu du Kriskitin dantza taldeak 2000. urtetik antolatzen duen Nazioarteko Folklore Jaialdiaren aurtenko emanaldia. Durangoko Andra Marian, 22:30ean da zita.

Argentinako bikote bik eskainiko dute *0054 tango y folklore argentino deraiz*, tango eta argentinako folkloreak dantza erakustaldi berezia. Eta Asocolvas taldeko 14 dantzariak Kolonbiako folklorea erakutsiko dute.

Argentinako eta Kolonbiako dantzariak arituko dira gaur

Uda Kalean Bizi jaialdiaren barruan izatekoa zen Folklore Jaialdia Durangon, baina ekitaldia gaur gauera arte atzeratu beharra izan dute Kriskitin taldeko antolatzaileek. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Fernan Ruiz Berbaroko kidea

Pinondoko leihotik, 20

Egoerak bete-bete harrapatu nau, eta ez daukat beste aukerarik. Estreinaldiko zenbakia 20a da ezinbestean. Koloreak, formak, argiak, soinuak, euskara... nahi nituzke nahastu gaurkoan. Ea margoak zer itxura hartzen duen.

Oporraldiak ia gehiengotan uzten dit gogoratzeko une bat, elkarrizketa bat... esaldi bat edo berba bakarra ere izan daiteke, baina beti zerbait. Argia eta koloreak izan genituen mintzagai Gaztelako txoko bare hartan, azken eguzki-printzek milaka irudi marrazten zituztenean pinuen adar arteko zirrikituez baliaturik. Lagunak azaldu zidan Leonardo da Vincik esaten zuela koloreen benetako kolorea eguzkia zeruertzean etzaten hasten den orduan ikusten dugula, arrastirian.

Koloreak, formak, argiak, soinuak... nahastu nahi ditut gaurkoan. Ea margoak zer itxura hartzen duen

Gure inguruak itxuraldatze nabarmena jasaten diharduela esateak ez du inor harritzen, horrela izan baita beti historian zehar. Durangon laster kolore bat eta haren soinua kenduko dizkigute bistatik, entzutetik. Burdinazko suge urdin zaratzatsua gogaikarria badoa ilunetara, lurpera. Beldur apur bat ematen dit, amaren ahotsaren ondoren trenaren soinua izan baitzen entzun nuen lehena. Esango nuke, onartuta dugula oztopoa dela, eta onena paretik kentzea da; haren presentzia barik erosoago ibiliko gara-eta. Sentipenak sentipen, izan dut inoiz irudipena gure hizkuntzarekin ere badagoela ilunetara bidaltzeko nahi hori.

20a izen bati lotuta doa, ezinbestean aipatzekoa hori ere. Nago Berbarok lan handia egin duela euskararen balizko lurperatze hori eragozteko. Eta indar asko xahutu du koadroa margotzen, koloreak, formak, argiak eta soinuak nahastuz, gure herria itxuraldatzeko...

Baina orain, eguzkia zeruertzean etzaten hasi da, eta ordua da koloreen benetako kolorea ikusteko, ea asmatu dugun jakiteko. Zorionak, Berbaro.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

Podología 188. Eragileak

• Oinetako patologiak
• Neurri-egindako plantillak
• Oinetako beste hainbat gaitz.

Herriko gudarien kalea, 10 - behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

DANTZA > IKASTAROA

“Ohore handia izan da inguruko herrietako dantzariak be ikasle izatea”

Martitzenean egin dabe ikasturte honetako AIKO dantzaldi ibiltarien aurkezpena. **Sabin Bikandi** txistulari galdakoztarrak egin deusku dantzarako gonbita. Irailean zehar emon ahalko da ikastaroan izena

Arrakasta itzela izan dabe Plateruenerako ekitaldiek.

Bai. Urte barriagaz ekin geuntsan ikastaroari lehenengoz, eta erromeria be programatu dogu hileru, zapatuetan. Jenteak dantzarako gustua hartu dau. Baina dantzak sakonago ikasi eta irakasteko denpora gitxi zela konturatu gara, eta jenteak be halan eskatuta abiatuko dogu urrian bederatzi hilabeteko ikastaroa.

“Urrian hasiko dogu bederatzi hilabete iraungo dauen dantza ikastaroa”

Zer talde egon da Durangon egin dozuezen saioetan?

Ikastaroa egin dogun Bizkaiko herri guztietan bizitakoa izan da sorpresa handia, baina bereziki harrigarria izan da Durangokoa: ehun lagun baino gehiago batu gara saioetan. Hori izan da, ikastaroa amaitu eta, orain, urritik aurrera be jarraitzera animatu gaituena: jenteak erakutsi deuskun dantzarako gogoia.

Zer egingo dozue saioetan?

Denetarako astia izango dogu bederatzi hilabeteko ikastaroan: oinarritzko gauza batzuk ikasiko doguz, baina gure eskoletako helburu bakarra teknika edo dantza ondo ikastea ez denez, astero dantzan egiteko gunea sortzea da helburu nagusia.

Denetariko jentea erakarriko dau zuen eskaintzak, ezta?

Bai, uste dogu transbertsalitate bat lortu dogula, bai ikasleen adinei jagokenez bai gizonen parte-hartzeari jagokenez be (oraindino hobetu leitekeen arren, poztekoa da hainbat mutil eta gizon be hurreratu izana dantzak ikastera). Sorpresa eta ohore handia izan zen inguruko herrietako hainbat dantzari etortzea be.

Dantza taldeetan aritzen den jentea hartu dozue, beraz. Dantzatzeko beste era bat ezagutu dabe zuekin?

Izan leiteke, bai. Gure *Dantzari Dantzan* hanka altxatzen, kurutzeak egiten eta ostikoak emoten trebeak dira dantzari batzuk, baina gero pasodoble bat dantzatzea gatz egiten jake.



“Astean behin dantzarako plaza bilakatuko dogu Plateruena”

Baloratzeak da, edozelan be, dantzarako erakutsi daben zaleatasuna. Polita izan da, besteak beste, Berritik Jose Alberto Narbaiza, lurretatik Tiliño edo Garaioko Jokin be ikastarora etortzea.

Zer landuko dozue?

Aurreko hiruhilabetekoan hainbat gauza ikasi genduen, baina urritik aurrera berriro hasiko gara: lehenago etorri zirenek ikasitakoa fresko izango dabe, eta hasibarriekin be elkartuko dira. Kontua astean behin dantzarako plaza izatea da.

Zelako giroa egon izan da dantzaldietan Plateruenean?

Ez da neuk esatekoa, baina egia esan giro oso jatorra lortu dogu: jente euskalduna, ikasteko gogotsu zegoena, zintzoa topatu dogu. Erronka handia izan da guretzat 90 laguneko talde bati dantzan irakastea; gu be irakasten ikasten joan gara saioetan. Jentearen parte-hartzeagaz lortu dogu plaza dinamikoa.

Zenbat irakasle ibiltzen zarie?

Hiru-lau lagunek jarduten dogu irakasten. Dantzaldi ibiltarian Larraitz eta neu ibiliko gara.

Zuzeneko musikagaz...

Eskolak grabatutako musikagaz egiten doguz normalean. Erromerietan bai, zuzeneko musika izaten dogu.

Hasieratik izan dozuen helburua dantzari seriotasuna kentzea izan da...

Lagun batek esan euskun “jentea armairutik plazara, dantzarara ateratzea” dela egiten doguna; lotsak galdu, ohiturak berreskuratu eta, batez be, dantza ikastearen prozesu horretan ondo pasatzea. Erratzen garenean barre batzuk egitea be bada kontua. Irribarre bat egin da be bardin-bardin ikasten da.

Zer dantza lantzen dozue saioetan?

Erromeriako edo plazako dantzak egiten doguz. Esaterako, jota eta porrusalda, lehengo eran egiten ikasten dogu. Orokorrean, dantzakera tradizionalera bueltatzea da bilatzen doguna: lurraren gainean dantzan egitea, natural. Gure apustua ez da espektakulu eta txapelketetako dantza egitea, gure aitita eta amamen dantzakera gordetzea baino. ■I.E.

Dantzak berezko dauen alde ludikoa



Durangaldeko herri askotan bizirik dagozen dantzekin hartu-emona daukien tradizio erritualak asko zaindu doguzela, baina dantzak berezko dauen alde ludikoa alboratu izan dogula dino Sabinekin, AIKO Dantza taldeko irakasleak. Erromeriak ziren lehenago hartu-emonak egin eta ondo pasatzeko guneak: elkarregaz dantzan hasita sortzen ziren hartu-emon asko, dino.

Gerraostean, dantza taldeak zabaldu zirenean, akademizatu egin zela dantzaren inguruko guztia uste du Bikandik, eta tradizionoko dantza-moldeak alboratu zirela.

Folklorean “umetu” egin dela uste dau AIKO taldeko kideak, azaldu deuskunez; askok umeak dantza talde batean apuntatzeagaz nahikoa egiten dabela uste ei dabe. “Umeeke zoezer egitea gura badogu (dela euskaraz berba egin, dela dantza egitea), helduok behar dogu izan adibide eta eredu”.

Horregaitik, eta polita delako elkarregaz egotea, dantza egitera gonbidatu gaitue Plateruenerako martitzenetako zitara.

BERTSOGINTZA > TXAPELKETA

Bertsolari Txapelketa Nagusia, urriaren 3a eta abenduaren 13a bitartean jokatuko dena, aurkeztu dute eguaztenean Bilbon. Euskal Herriko zazpi herrialdeetako bertsolariak lehiatuko dira udazkenean bertsozale guztien zita garrantzitsuena izango denean. Errusiar mendia irudi duen lehiaketan, hiru dira Durangaldeko ordezkariak: Igor Elortza, 2008an Bizkaiko txapel-duna; Unai Iturriaga, orain lau urteko Txapelketa Nagusian bigarren sailkatua; eta Miren Amuriza, lehenengoz kantatuko duena Euskal Herriko Txapelketan.

Aurreko txapelketetan egindako lanari eta sailkapenari eskerrak, finalaurrekoetan sartuko dira lehian Elortza eta Iturriaga durangarrak. Azaroaren 8an Gasteizen kantatuko du Unai Iturriagak, eta azaroaren 14an Tolosan estreinatuko da Igor Elortza Txapelketa Nagusian. Final-laurdenetan lehiatuko da, bestalde, Miren Amuriza berriztarra: urriaren 24an du lehenengo saioa; iazko abenduko Bizkaiko finalaren atarian geratu zen, eta orduan lortu zuen Txapelketa Nagusirako txartela.

Saioetarako sarrerak aurrez erosteko www.bertsosarrerak.eu helbidea zabalduko dutela ere iragarri dute aurkezpenean. Edizio honetan ez da Durangaldean txapelketako saiirik jokatuko.

Final-laurdenetatik hasita lehiatuko da Miren Amuriza

Aurreko txapelketetan egindako lanari esker finalaurrekoetan sartuko dira durangarrak lehian

Mendi Errusiarra

Bertsozale eta bertsolariak, bertso saioetan zein txapelketetan bizi dituzten emozioak agertu nahi dituen mendi errusiarra da aurtengo Txapelketa Nagusiaren irudia. Bestalde, Zura talde hondarribiarraren kanta izango da Euskal Herriko Txapelketa erritmo brasildarrekin iragarriko duena.

Guztira, 44 dira txapelketan parte hartuko duten bertsolariak

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa aurkeztu dute

Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Miren Amuriza dira udazkenean jokatuko den Txapelketa Nagusian parte hartuko duten Durangaldeko bertsolariak



eta txapelketaren protagonista nagusi izango diren horiekin; Asier Ibaibarriaga ermuarra epaile eta Maite Berriozabal berriztarra gai-jartzaile arituko dira.

Urriaren 3an lehenengoa eta abenduaren 13an du azken saioa



txapelketak; orain lau urte legez Barakaldoko BEC-en izango da finala. Bertan izendatuko du epaimahaiak orain arte Andoni Egañarena izan den Euskal Herriko bertsolarien txapela nork jantziko duen datozen lau urteetan. ■ I.E.



Zazpi herrialdeetako 44 bertsolarik jardungo dute txapelketan

PINTURA > ERAKUSKETA

Alvaro Cuartango bilbotarrak artelan bilakatutako lur eta paisaia zatiak

Durangoko Arte eta Historia Museoa irailan erakusteko hautatu duten erakusketa da Alvaro Cuartango artista bilbotarraren lanen bilduma



Alvaro Cuartango artista bilbotarraren margolanek betetzen dituzte ikasturte hasiera honetan, irailan zehar, Durangoko Arte eta Historia Museoa bigarren solairuko aretoko hormak.

Autoreak iaz eta urte honetan egindakoak dira erakusketakoak

Erakusketarako bildutako guztiak autoreak iaz eta urte honetan egindako koadroak dira, formatu txiki (55x46 zm) zein handiagoko (116x89 zm) sorkuntzak.

Arte ikasketak Berlinen burutu zituen Cuartangok, eta azken urteetan Bilboko estudioan garatu du bere sormen lana; tartean, Arte eta Historia Museoa eskegi dituzten koadroak.

Durangoan ikusgai ditugun Cuartangoren lan hauen bereizgarriak koadroen askotariko testurak dira, besteak beste; lurragaz, naturagaz, paisaiagaz lotutako egiturak eta lur-koloreak agertzen dira lanetan. Izenik bakoak dira koadroetako asko, artistak azaltzen duenez, pentsatutako prozesu batetik ez, margotzearen ekintzatik bertatik sortutakoak dira.

Naturari begiratuta

Koadroen inguruko bestelako azalpenik eman barik, artelanak eurak dira mezua, artistak azaltzen duenez, eta ez dute bestelako azalpenik behar. Baliteke horregatik aurkeztea koadroak "izenik barik", ikuslearen interpretaziorako zabalik dauden zeinu bakarrak koadroaren barrukoak izanik. Aldi berean, baina, bere artelanen inguru-

ruan asko pentsatzen duela nabarmendu du Cuartangok. Marratzen duenekoak une oso puruak izan daitezela bilatzen duela dio.

Olio-pinturagaz oihal zein zurezko taulen gainean marraztu ditu bere lanak. Erabiltzen dituen kolore, euskarri zein sortzen dituen testura berezietan eta koadroetan hautematen diren motiboak ikusita, agerikoa da autoreak aitortzen duen legez, "naturari begiratze" joera duela. ■ I.E.

Olio-pinturagaz zurezko zein oihalezko taulen gainean margotukoak

Naturagaz, lurragaz eta paisaiagaz lotutako kolore eta testurak

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

- IRAILAK 19 14:30ean **BERBARO 20 URTE** BAZKARIA.
- IRAILAK 19 19:00etan **DANTZALDI IBILTARIA** AIKO TALDEA DANTZALDI ERROMERIA. Sarrera: doan.
- IRAILAK 20 17:30ean **HITZEN LAPURRA** Bertsobongiloa UMEENTZAKO ANTZERKIA. Sarrera: doan.
- IRAILAK 22-23-24 20:00etan **ZURE VISION SOCIAL VISION** Garapena, generoa eta elkarlaguntza ZINEMA ETA KOOPERAZIO EMANALDIA. Sarrera: doan.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

TONDO REDONDO Da. Te Danza (Granada)

Dantza ume txikientzat

Irailak 20 18:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburudenda

Tel.: 946 601 07 76 Artekale, 14 Durango

BAUTISTA ALTZARIAK ETA DEKORAZIOA-REN — ALTZARIGILE IZARRAK PROMOZIOA —

altzarigile ugariko aukera
prestatu dugu zeure eskura
jartzeko **PREZIO IZARRETAN**,
eta zure erosketagatik taloi bat
jasoko duzu opari, gainera,
gure dendetako edozein
produktugatik trukatzeko
edo bere prezioa
zuzenean merketzeko



**SUKALDEAK - BAINUGELAK
EGONGELAK - LOGELAK
HAURRENTZAKO LOGELAK - TAPIZAK
GORTINAK - STOREAK - ALFONBRAK
OHE-JANTZIAK - ARGIZTATZEA**

**DOAKO FINANTZIAZIOA
12 HILEAN
PROIEKTUAK ETA AURREKONTUAK
KOMPROMISORIK GABE**


BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LLODIO - ABADIÑO

Durangaldetik Mongoliara, 25 eguneko abentura



Mallabia eta Ermuko lau gaztek Mongol Rallyan parte hartu dabe uda honetan. Uztailaren 17an irten ziren Ermutik, eta 25 egunen ondoren heldu ziren Ulan Batorrera, Mongoliako hiriburura. Izaera benefikoa daukan lasterketa da honakoa, kirolean eta, batez be, abenturan oinarritutakoa.

Etxean dira dagoeneko Ermu-Ulan-Mallabiataldeko abenturazaleak. Milaka kilometro eta makina bat pasadizo itzi ditue atzean kirola eta elkertasuna batzen dituen Mongol Rallyan. Ulan Batorreko helmugan eskuak altxatu zitueen, euren erronka bete ebelako.

Miguel Moyano, Erik del Rio, Iosu Azpiri eta Unai Bergaretxe izan dira istorio horretako protagonistak. Urtebetez jardun eban aurrelanean, laguntzak lortuz eta planifikazioan murgilduta. Uztailean hasi zen euren ametsa egi bihurtzen, Ermutik Bartzelonarantza atera zirenean. Katalunian zegoen ipinita rallyaren irteera ofiziala; 100 talde inguru abiatu ziren handik.

Bi kotxetan egin eban espedizinoa: 1.100 zk-ko Peugeot 106 markako bi, hain zuzen be. Potentzia txikiko ibilgailua da honakoa, baina helburua ailegatzea zen, astiro bazen be.

Lasterketakizaera benefikoa dauka, eta parte-hartzaileek kotxea Mongolian izten dabe, laguntza moduan.

Herrialdez herrialde

Mongoliarako bidea ez da erraza izan lau gazte honeentzat. Hainbat herrialde pasatu behar izan dabe, eta kulturak eta orografiak eragin handia izan dabe bidaian. Beraz, hainbat kultura ezagutzeko aukera eduki dabe, baina ezagutzen ez dogunak ezustekoak emoten ditu sarri-

tan. Lehenengo etapan Turkiaraino joan ziren, Europa zeharkatuz. Hurrengo pausu garrantzitsua Iran zapaltzea zen, abenturaren erdibidean. Hortik aurrera Turkmenistan, Uzbekistan, Kazajstan, Kyrgistan eta Errusia igaro zitueen, Mongolian sartu baino lehenago.

Kideek esan deuskuenez, "Mongolian hasi zen benetako lasterketa". Izan be, herrialde horretan ez dago ia errepedirik, eta horrek gaxago bihurtu eban egitasmoa. Gainera, herrialdeen arteko mugak be oztopo izan zitueen; denpora asko emoten eban mugak pasatzeko.

Kostata, baina gustura

Beroa, jatekoa, hizkuntza, arazo mekanikoak... faktore ugari izan zitueen kontra Mallabia eta Ermuko gazte honeek. Dena dela, orokorrean "ondo" joan zela argitu deuskue, eta oso pozik dagoz egindakoagaz.

Saltoka amaitu eban proba Ermu-Ulan-Mallabia taldekoek. Erronka hori gaindituta, laster beste abentura batean ikusiko doguz, segurutik. ■ M.Onaindia

Herrialdeen arteko mugak izan dira gainditu beharreko oztopoetako batzuk

Beroa, jatekoa, hizkuntza, arazo mekanikoak... faktore ugari izan zitueen kontra lau gazte honeek

Urtebetez jardun eban aurrelanean, laguntzak lortuz eta planifikazioan murgilduta



Anekdota eta bizipen itzelak ditue Mongol Rallyko partaideek. Berririo Mallabian eta Ermuan lur hartuta dagozela, 25 egunetako esperientziagaz akordatzen hasi dira. Kontatzeko asko daukie; gogotsu egiten dabe, gainera. Aurreiritzi larregi ei daukagu. Miguel, Iosu, Unai eta Erikegaz batu da ANBOTO.

Abentura, kirola eta elkartasuna. Esperientzia itzela, ezta?

Erik: Oso neketsua izan arren, ikusgarria izan da. Egun eta kilometro asko emon dogu kotxean sartuta. Antolakuntzatik aparte egingo bagendu hobeto, denpora gehiagogaz.

Zerk harritu zaitue gehien?

Iosu: Jentearen eskuzabaltasunak. Iranen eta Turkian, adibidez, laguntza handia emon euskuen herritarrek. Aurreiritzi asko daukagu. Herrialde horreen beste irudi bat dago hemen, eta hara joanda ez da hainbesterako.

Bidea, luzea eta gogorra...

Miguel: Bai. Egun batean 1.900 kilometro egin genduzen, esaterako, bi ordu lo

Iranen eta Turkian, adibidez, laguntza handia emon euskuen herritarrek

eginez. Beroa ikaragarria zen; kotxean handiagoa. Errepide asko txarrak ziren, eta Mongolian ez zegoen biderik. Errekak be pasatu genduzen, kotxeari snorkel estiloko tutu-sistema ipiniz.

Ezagutu dozuen herrialdeetatik, zeinek geratzen zarie?

Unai: Kirgistanekin. Paisaia ikusgarriak dagoz han. Errepidea, gainera, 3.000 metrotik gora pasatzen zen. Oso polita!

Zelan konpontzen zinienez lo egiteko?

Miguel: 19:00ak heltzen zirenean, gengozen inguruan leku bat bilatzen genduen. Bestela, eremu desertikoan akanpatu behar zen, beharbada. Eta gauez ez zen ez eroso ez segurua. Ondo mol-

datu ginen: lau egunetan soilik ipini genduen kanpin-denda. Dena dela, lekuak ez ziren atseginenak; hotel batean ez ginduezen hartu hautsez gainezka gengozelako. Nomadekin be egon ginen lotan eta afaltzen.

Eta jateko?

Unai: Normalean, lortzen genduen jatekoa. Hori bai, egun batzuk txarto pasatu genduzen jatekoren baten erruz. Oso pikantea zen. Ni oso ahul ailegatu nintzen Turkmenistanera.

Miguel: Bost kilo arroz erosi genduzen gorputzak asentatzeko. Nomaden gaztariak zapore oso eskasa zeukan. Oraindino goragalea sortzen jat akordatzen nazenean!

Zer sentitu zendueen Ulan Batorreko helmuga zapaltzean?

Iosu: Oso polita izan zen. Mongoliako kilometroak Valentzia, Madril eta Extremadurako talde batzuekin egin genduzen, eta "feelinga" igartzen zen. Kotxe batetik bestera saltoka, gure artean karrerak egiten...

Mongolian ez zegoen ia errepiderik; errekak be pasatu genduzen

Unai: Zeozer bete genduen sentsazioa geukan. Zoroen moduan hasi ginen saltoka (barrez).

Berririo halako abenturaren batean sartzeko asmorik?

Iosu: Ni Malirako beste rally batean pentsatzen nabil, baina oraindino ideia baino ez da.

Erik: Badaukat gogoa. Buruan daukadan hurrengo abentura Londresetik Australiara autobus batean joatea da. Europa, Asia eta Ozeania zeharkatzen ditu hiru hilabetetan.

Miguel: Holako abentura batek lana eta laguntza behar ditu. Eskerrak emon gura deutseguz babesle guztiei, eta, batez be, Mallabiko Udalari. ■ M.O.



Gutunak @

Jai herrikoiak eta akonfesionalak

Zein izango ete da Sanfaustoetako aurtengo polemika? Ospatu, ospatuko ditugu jaiak, baina zeren inguruan sortuko ete da aurtengo eztabaida? Udan gertatu dena ikusita, Ares sailburuaren "fotomatoi" koadrilaren bisita izango ote dugu? Merezi du, ordea, beste gai bati behar duen protagonismoa eskaintzea: gure jaien izaera konfesionala.

Urtero legez, Udalak argitaratu duen jai-egitarauan, San Fausto Egunean San Faustoko elizan egiten den meza dator iragarrita. Azken urteotako ohiturari jarraituz, Aralarrek ere horren kontrako iritzia plazaratu nahi du. Izan ere, herri osoari eskaintzen zaion herriko jaietako egitarau "ofizialak", ez luke ekitaldi konfesionalik izan behar.

Udala herri osoaren ordezkaria da, erlijio, fede eta ideologia ezberdinetako pertsonak barne. Badakigu herri guztiari zuzendutako jaiak diren heinean, toki bakoitzeko patroien ohoretan prozesioa ohitura garrantzitsua dela. Baina ohiturak aldatu egiten dira, herri jakin bat osatzen duen gizartea aldatzen den moduan. Begiratu zuen ingurura, gaur egungo Durango ez da orain 50 urteko Durango zena; eta durangarrok ere aldatu gara, kopuruz eta izaeraz ugaritu gara.

Erljio katolikoa zen gizartearen oinarrietako bat (behabada sendoena), oraindik indarrean jarraitzen duen garai hartan. Aginte zibila eta erlijioa gauza bera ziren, nahastu egiten ziren. Beraz, logikoa da antzinako herrietako jaietako egitarauen bizkarrezurra erlijioa izatea. Handik dator gaur egun dauden ekitaldi "ofizial" horien izaera; egitarauetan inertziak mantentzen diren erlijio ekitaldiak dira.

Estatuak 30 urte betetzen dituen Konstituzioa du, onerako eta txarrerako. Akonfesionaltasuna aldarrikatzea aurrerapausoa dela deritzogu. Oraindik bizirik dira, ordea, Jainkoaren aginduaren menpekotasunetik eratorzen diren zenbait ohitura. Aralar ez dago horien aurka, baina akonfesionala den herrian eta guztientzako egin den jai-egitarauak ez luke horrelako ekitaldirik barneratu behar. Herritar denak ez garelako erlijiodunak, eta erlijiodun guztiak ez direlako katolikoak.

Durangon badira esan dudaren aurka dauden alderdiak, tradizio jakin batzuk -katolikoak, alegia- mantentzearen alde dauden alderdiak. Udaletxeko Kultura Batzordean, jai-egitarauan tradizio horiek iragaritzearen alde bozkatu zuten PNVk eta PPK, hain zuzen ere. Aralar aurka agertu zen, Talde Mistoarekin batera. Zer gertatu zen PSErekin eta EBrekin? Sozialistak eta komunistak abstenitu egin ziren. Beraz, sozialistei eta komunistei esker tradizio katolikoei jarraikortasuna emango zaie Durangon. Sasi-sozialista eta sasi-komunista esan beharko dugu beste behin.

Durangarrak jakinaren gainean izan daitezten. Horrelakoak gertatzen dira udal politikan, beste inon gertatzen ez diren bitxikeriak.

Dani Maeztu Aralarreko zinegotzia Durangon

Klik batean @



Zein da ama eta zeintzuk dira kumeak?

Matienan, Motxioia ondotik doan errekan gora eta behera albedan ibiltzen diren paitei igartzen jake, bai, ogi bigun gozotan ohituta dagozela. Opor aurretik, paita txikiak ez ziren amaren ondotik urruntzen; beti babespean. Orain, ezin dira bereiztu. Hainbat, ama bera izango da txikiena. Etxetik joan eta norbere kabuz bizitzen noz jarriko diren ez deuskue azaldu, baina hurretik segitzeko kontua izango da.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta
astekaria@anboto.org

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta Anbotoren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



Carlos Iglesias

Durango Masterretik Morfeoren ametsera

Durango glamourrez beteta ikusi dugu joan den astean. Farandulako zein famatu etorri den aspaldion urira galdetuko diozue zuen buruari. Morboa eragiten duen inor ez dela etorri aurreratu behar dizuet. Hori bai, Durango armiarma mutanteek hartu dute. Spiderman imitatzeke besteak izan dira. Gizakiak grabitate-indarra ezin duela desafiatu esango dute batzuek orduan. Galdetu diezaizetela Chris Sharma, Patxi Usobiaga, Tomas Mrazek, Maja Vidmar, Angela Eiter eta gainerakoei.

Punterengo eskalatzailerek Durangoko Lehenengo Nazioarteko Masterrean parte hartu dute, Dima Rock Master moduan ezagutzen zena lehenago. Herritarren eta bisitarien artean harrera bikaina izan du. Eta hori iraila hilabete "ezberdina" izaten dela, lanera edo eskolara bueltatu behar dugulako. Mota honetako ekitaldi batek ikuslea energiagaz betetzea lortzen du, itzulera eramangarriagoa eginez.

Masterra bezalako ekintza gehiago antolatu daitezela eskatzeko momentua izan daiteke. Ohiko ospakizun edo ekitaldi eruditik kanpora gelditzen da hau, sarritan behar bezala baloratzen ez den kirol baten kasua baita.

Ematen duenez, bigarren edizio bat ere izango du eskalada txapelketak. Bitartean, dagoenarekin itxaron beharko dugulakoan nago.

Baliteke Sanfaustoetan Fernando Alonso bezalako pertsonaia mediatiko batek bere helikopteroan lur hartzea. Bere emazteak kontzertua eskainiko du, eta lanak uzten dionean elkarrekin joaten ei dira. Lur hartzeko eta publiko sutsuarentzako lekua egin beharko dugu orduan.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2009ko irailaren 18a - 8. urtea - 343 zk.

Laguntzailea:



Eta honako Udal guztiak:

Abadiño	Elorrio	Mallabia
Atxondo	Garai	Mañaria
Berriz	Iurreta	Otxandio
Durango	Izurtza	Zaldibar

Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti

Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:

Aitziber Basauri, Pello Mugarza,

Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:

Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit

Fernandez eta Kepa Aginako.



Maitane Martinez hirian zehar zebilen bizitzan hiru gauzak arduratu dutela hausnartuz: osasuna, maitasuna eta lana. Horoskopokoak hirurak iragarri zizkion, baina berak ez zuen euskaraz ulertzen.



Lana bilatu zuen, beraz, eta aurkitu.



Herrialdez herrialde bidaiatu zuen, dirua irabaziz baina osasuna galduz.



eta utzi egin zuen, etxera itzuli eta footlinga egiteko. Horrelaxe egin zuen topo berriz ere Gari Garaterekin.



maitemindu egin ziren eta Gari Garatere-ri matrikulatzeko konbentzitu zuen Maitane.

Gaur egun Maitanek badaki euskaraz, maiteminduta jarraitzen du eta osasuntsu dago. Nola ez, lana ere aurkitu du.

Batzuetan, biderik laburrena da onena.



...garena ikasteko!

ikasi euskara Eman izena



Garena ikasteko
para entendemos
pour se comprendre

www.aek.org

Durango Abarak AEK euskaltegia 946 81 73 49
Zornotza AEK 946 73 43 70
Elorriko Abizari AEK euskaltegia 946 58 21 11
Abadiñoko AEK, Berizko AEK, Zaldibarko AEK. Informazioa:
946 81 73 49 (Durangaldeko AEK)

- Euskalduntze maila guztiak
- 3.maila /EGA prestatzeko ikastaroak
- 1., 2., 3. eta 4.mailako HABE azterketa ofizialak
- Hizkuntz eskakizunak, Irale, HAEE.. ikastaro trinkoak,...
- Eskaintza bereziak : Guraso Taldeak, merkatariek, enpresa taldeak, etorkinak - AISA
- Autoikaskuntza
- EGA edo HE2tik gorako ikastaroak: 4.maila (4 H.E/P.L)

durangaldeko
bherriak
ezagutzeko

anboto
komunikabideak



durangaldeko astekaria Egin zaitez harpidedun



harpidedun egiteko, deitu
94 681 65 58 telefonora edo
harpidedun@anboto.org-ra
zure izen-abizen eta helbidea bidali

KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

Emaitza ez da beti ondorioak ateratzeko daturik fidagarriena. Zallaren kontra 3-0 galduta, badirudi defentsakolan kaskarra dela Kulturalaren joan zen asteburuko ahuldadeen artean okerrena. Ez da horrela. Zallak ez zuen beste munduko arriskurik eroan durangarren atara, baina oso eraginkor agertu ziren. Axier Intxaurrega entrenatzailea benetan kezkatu zuena erasoan erakutsitako ezintasuna izan zen. Baloia idearik eta inspiraziorik barik mugitu zuten. Laudio egurtu zuen taldearen arrastorik ez zen somatu. Beraz, bihar, Gernikaren kontra jokatu beharreko partiduan, erasoko jokoa hobeto jostea izango dute helburu, ia-ia obligazio, punturen bat urratu gura badute behintzat.

Erasoan hobetu behar

Intxaurregak ondo definituta du taldearen jokamoldea, eta jokalariek erakutsi dute teoria zelaian praktikan ipintzeko kapaz badirela. Erregularitasuna falta zaie, denborak eta konfiantzak ematen duen jarraikortasuna: "Guk gure ideiak dauzkagu, eta horien arabera jokatuko dugu bihar. Gernika play off-a jokatu ohi duen taldea da, eta aurten ere, segurutzat, goian ibiliko da. Hala ere, baloia mugitzen eta aurrera joaten ahaleginduko gara", azaldu du Intxaurregak.

Jon Conde erasoko joko horren partaide izango den, ikusteko dago. Gaixorik eman du astea, eta hortik zalantza. Julen Gonzalok ez du jokatuko, seguru. Urte eta erdi zelaietatik kanpora eman ondoren, kosta-

Erasoko jokoa freskotasuna berreskuratzea du helburu Kulturalak

tzen ari zaio sasoia hartzea. Batez ere, hanketako muskuluetan dauzka arazoak. Guztiz errekerperatzen denean jokalaria garrantzitsua izango da zelai barruan zein handik kanpora; esperientzia handikoa da. Bigarren B Mailan Bilbao Athletic, Burgos eta Barakaldo taldeekin jokatua da eta hirugarren Mailan ere badu esperientzia. Gainera, oraindik 29 urte dauka. ■ J.D.

24 Bilbao Basket-Bruesa, Landakon

Tabirakoren 50. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan jokatuko dute, martitzenean. Hilaren 26an, Perfumerias Avenida eta Hondarribia Irun lehiatuko dira

25 Patxi Usobiaga txapeldun

Dur&Go Masterra Patxi Usobiagak irabazi zuen gizonetan eta Mina Marcovicek emakumeetan. Euskadiko Txapelketa Gorka Karapetok eta Itziar Rodriguezek irabazi zuten

Cafés Baqué Txapelketak hasi du bere bidea

Euskal Herriko eta Errioxako 48 pilotari lehiatuko dira maila bitan



Aurkezpen ekitaldian Bizkaiko Pilota Federazioko ordezkariak eta Udaletako alkateak batu ziren.

Euskal Herriko eta Errioxako kadete eta gazte mailako promesarik handienak batuko ditu, beste behin, Cafés Baqué Pilota Txapelketak. Maila bakoitzean 24 pilotari lehiatuko dira, lau multzotan banatuta. Lehiatzeko sistema ohikoa da; galtzaileak kanporatu egingo dituzte eta irabazleek multzoko hurrengo mailara salto egingo dute. Multzoburuek finalerdiak jokatuko dituzte, Atxondon, azaroaren 25ean; aurten finala hartzea Abadiñori tokatzen zaio, azaroaren 29an.

Durangaldeak ordezkari bi ditu: Iñigo Pradera kadeteetan, eta Gotzon Urkijo gazteetan. Biek behetik ekingo diote txapelketari. Partiduak Abadiño, Atxondo, Iurreta eta Mañariko pilotalekuetan jokatuko dituzte, herri horietako udalak txapelketaren laguntzaileak direlako.

Eguaztenean lehen jardunaldia jokatuko zuten Mañarian. Praderak 14-18 galdu zuen Etxebarriaren kontra eta Urkijok 22-7 menderatu zuen Elorriaga. Era berean, Mendiolak kadeteetan eta Gonzálezek gazteetan hurrengo faserako txartela lortu zuten.

Oro har, faboritoen zerrenda luzea da. Multzoburuen artean, Larunbe galdakoztarra, Jaka eta Arzelus gipuzkoarrak eta Beraza nafarra bereiztu dituzte adituek. Elezkano zaratamoa, Esteban errioxarra eta Arrieta markinarra ere goian ibili daitezke.

Aurkezpen ekitaldian, Jose Antonio Lopez Bizkaiko Pilota Federazioko presidentek txapelketaren maila azpimarratu zuen: "Federazio bakoitzak bere pilotaririk onenak aukeratu ditu. Aurrefasean 122 pilotari lehiatu dira, eta sailkatu direnek maila handia dute". ■ J.D.

Bruesa-Bilbao Basket, urteurrena ospatzeko

Martitzenean jokatuko dute Tabirakoren 50. urteurrena dela-eta antolatutako lehia

Tabirakok ekitaldi sorta oparoa antolatu du kluba sortu zenetik mende erdia bete dela ospatzeko. Datorren martitzenean, 20:00etan, ACB ligako euskal talde bi aurrez aurre borrokatuko dira Landako kiroldegian; Bilbao Basket eta Bruesa.

Irailaren 26an, berriz, emakumeen goi mailako partidua antolatu dute. 19:30etik aurrera, Hondarribia Irun eta Perfume-

Hondarribia Irun-Perfumerias Avenida emakumeen partidua jokatuko dute 26an

Durangaldeak pilotari bi ditu: Iñigo Pradera mallabitarra eta Gotzon Urkijo berriztarra

Eguaztenean hasi zen txapelketako finala Abadiñon jokatuko dute azaroaren 29an

rias Avenida -Salamanca- taldea- neurtuko dira. Partidu bietan sarrera doakoa da bazkideentzako. Bestalde, datorren barikuan, Tabirakoko taldeen aurkezpen ofiziala egingo dute, 17:30etik aurrera.

Joan zen astean gizonen Baqué Torneoa jokatuko zuten. Tabirako bigarren izan zen, Cafés Aitonaren atzetik. Durangarrek 74-65 irabazi zitoten Urdanetari, finalerako sailkatuz. Final estuan 69-63 galdu zuten.

Asteburuan emakumeen Baqué Torneoa jokatuko dute. Bihar, 17:00etan eta 19:00etan, Cafés Aitona-Bera Bera eta Tabirako-Irlandesas neurketak jokatuko dituzte. Finala etzi, 12:00etan izango da. ■ J.D.

Mikel Bilbao

• Radio Euskadiko kazetaria



Pablo, udako erregea

Bere kamisetan 'Berasaluze VIII' ageri bada be, uda zoragarriaren ondoren 'Pablo I' edo 'Don Pablo' bihurtu da. Zenbakiek dena esaten dabe: udako lau torneo jokatuko eta guztietan finalera heldu da. Horreetako bi irabazi ditu; San Ferminetako eta Donostiako. Zarauzko torneoan ez zuen parte hartu, Asegarcek beste pilotari batzuen aldeko apustua egin ebalako.

Pablaren errendimendu itzelean ezin daiteke aitatu barik itzi Aritz Beginoren lana. Udako bikotea osatu dabe, igazko ibilia berretsiz. Beginoren joari berriztarraren errematerako usainak lagundu deutso. Ipini leikioeen atxaki bakarra, uda hasikerako txispa barik amaitu dabela da; normalena, dena jokatuko dabela kontuan hartuta. Gainera, Asegarceri ederto etorri jako Pablaren sasoi, udan herri askotako erreklamua izan delako. Berriztarra bigarren geratu da Asegarceren ranking-ean.

Pablo hau beste pilotari bat da. Finagoa, une gaxtetan hazi egiten dena, mentalki indartsuagoa. Hurreko pertsona maitatu baten heriotzak izakera zaildu deutso. Asegarcegaz kontratu apala onartuta, dena karta bakarrera jokatuko eban. Eta emaitzak heldu egin ziren: San Fermin eta Blanca torneoen, esaterako. Azken horretan, Ogetako zaleek, aho batez, "Pablo, Pablo" oihukatzen amaitu eban.

Roberto Garcia Ariñoren binakakoa 81ean eta Iñaki Gorostizaren buruz burukoa 77an. Horrekin Durangaldeko azkenak txapelketa handietan euren izena zigilatzen. Beraz, jarraitu daigun disfrutatzen eta, zergaitik ez, amesten.

Adituarentxokoa

Walter Becerra faborito da Sorginen Lasterketan

Emakumeen arteko pronostikoak zabalik daude; guztira, 250 lasterkari dira lehian

laz garaipenaren ateetan gertatu ondoren, aurten gizonetan Walter Becerra dugu Sorginen Lasterketa irabazteko faborito nagusia. Sasoi puntu onean dago, joan zen asteburuan Arrateko igoera irabazita.

Dena dela, lasterketa irabazten badu, gutxienez, aurretik lana latz eginda izango da. Lasterketa bihar 09:30ean abiatuko da, Axpeko plazatik. Maratoi

erdiko ibilbide gorabeheratsuak Pol-Pol eta Zabalaunditik erango ditu lasterkariak. Arrazolan amaituko da lasterketa laburra. Gainerakoek beste 10 kilometro egingo dituzte Betsaidetik bueltan. Irabazleak 300 euro jasoko ditu, gizonetan zein emakumeetan.

Iaz Ionut Zincak irabazi zuen gizonetan, eta Nerea Amilibiak emakumeetan. J.D.



Gizonetan Ionut Zincak irabazi zuen iazko lehenengo aldian.

Usobiagak munduko txapelduna zergatik den erakutsi zuen

Patxi Usobiagak irabazi zuen Masterra gizonetan, eta Mina Marcovikek emakumeetan



Patxi Usobiaga, Jacob Schubert (ezkerrean) eta Chris Sharma (eskuman) podiumean.

Gaur egun rokodromoko jardunean parekorik ez duela erakutsi zuen, beste behin, Patxi Usobiagak. Gizonetan inork ez zuen gailurrik harrapatu, baina eibartarra metro eta erdi eskasera geratu zen: "Pena izan da goraino ez heltzea. Bidea nahiko deserosoa zen, baina gustura nago nire lanagaz", azaldu zuen Munduko Txapeldunak.

Usobiagagaz batera, Jacob Schubert-ek eta Chris Sharmak osatu zuten Dur&Go Masterra podiuma. Schubert eta Usobiaga izan ziren bideko gunerik gaitzena gairak zuten bakarrak.

Gizonen artean ezin izan zuen inork gorainoko bidea osatu

Emakumeen artean merezimenduz irabazi zuen Marcovikek

Sharmak antolatzaileek wild cardaren bitartez finalerako sailkatu izana justifikatu zuen. Abiadura probetan ez da hain abila, baina arroketo eskaladari parekatzen zaion erronka bat jartzen diotenean bere saltan aurkitzen da.

Mikel Ziarrusta izan zen bigarren euskalduna, bederatzigarren tokian. Antton Zabala eta Gorka Karapeto ondo aritu ziren, baina biek ere eman zutena baino gehiago eman zezaketen: "Erdibidean salto egitea eskatzen zuen tramu bat zegoen. Ez zen oso gaitza eta saltatu dut,

baina heldulekuak laban egin dit eta balantzari ezin izan diot eutsi", penatu zen Karapeto azpeitiarra.

Emakumeetan Mina Marcovic-ek jantzi zuen txapela. Johanna Ernst 16 urteko gaztea geratu zen bigarren, Angela Eiter hirugarren eta Maja Vidmar laugarren. Lauak heldu ziren goraino emakumeentzako diseinatutako bidean, eta gizonetazkoen erabaki zuten podiuma.

Euskadiko Txapelketa Gorka Karapetok eta Itziar Rodríguezek irabazi zuten

Block&Go modalitatean Chris Sharmak erronka denak gairak zuten

Bestalde, Euskadiko Txapelketa Gorka Karapetok irabazi zuen gizonetan eta Itziar Rodríguezek emakumeetan.

Block&Go-n Sharma onena Domekan Block&Go ekimena ospatu zuten. Parte hartu zuten eskalatazaileek bide bat diseinatu zuten boulderrean, besteek igo zezaten. Sharma kaliforniarra izan zen denak igo zituen eskalatazaile bakarra. Emakumeetan Natalija Gros eta Johanna Ernst-ek lehenengo tokia partekatu zuten; bakoitzak launa bide igo zituen. ■ J.D.

Ahaztu lurreta zikloturista ibilaldia, etzi

Aita San Migel plazatik abiatuko dute etzi, 09:00etan, Ahaztu lurreta zikloturista ibilaldiaren XXII. aldia. Federatuentzako 12 euro da izen-ematea -lizentzia erakutsi beharko dute- eta ez federatuentzako 28 euro. Izen-ematea ibilaldia hasi aurretik arte egin ahal da, eta gehienez 300 parte-hartzaile onartuko dituzte.

Ibilbideak 95 kilometro ditu, eta ohi legez helburua ez da lehiatzea, bizikletagaz gozatea baino. Beraz, zirkulazio arauak errespetatzeko eskatu dute antolatzaileek.

Parte-hartzaileek irteeran, hornidura-postuan eta amaieran, hiru tokietan zigilatuko beharko dute ibilaldi osteko saria jasotzeko.

Durangok sendo hasi du zesta txapelketa

San Fausto Zesta Txapelketari hasiera ona eman dio Zabalak eta Azkaratek osatzen duten bikote durangarrak. Getxoren kontrako bi set-ak irabazi zituzten (15-12 eta 15-8). Markinak eta Zumaia ere ez zuten hutsik egin, eta erraz menderatu zituzten Donostia eta Euskal Jai, hurrenez hurren.

Gaur, 19:30etik aurrera, txapelketako beste partidu bi jokatuko dituzte Jai Alain: Tolosa-Lekeitio eta Andoain-Berriatua. Lehenengo lehiako irabazleek Durango Bren kontra jokatu dute domekan, 12:00etan hasita. Azkenik, bihar 18:00etan, Noainek Donibane Lohitzunen kontra jokatu du, eta Cabanillasek Mutrikuren kontra.

Eskualdeko lau futbol taldek hasiko dute liga

Berrizek Ohorezko Mailan eta lurretakok, Zalduek eta Elorriok Lehen Erregionalean, denboraldiko lehen partiduak jokatu dituzte asteburuan.

Berrizek etxean ekingo dio ligari domekan, 11:30ean, Sondikaren kontra. Aspaldiko partez Lehen Erregionalerako bueltan dagoen Elorriok ere Eleizalden jokatu du, bihar 17:00etan, Errigoitiren kontra. Iazko Bigarren Erregionaleko txapeldunari dagokion kopa ere jasoko dute. lurretak eta Zalduek kanpoan jokatu dute, Lekeitioaren eta Gazteluzarren kontra.

Elorriok iazko txapeldunari dagokion garaikurra jasoko du

6.000 zale batu ziren Astolako motor jaialdian

Motorzale guztien bilgune bihurtu zen Astola joan zen domekan. 6.000 lagun inguru batu ziren Asier Martínezen Oroimenezko Supermotard Txapelketagaz zein bestelako ikuskizunekin gozatzeko gogoz.

Txapelketari dagokionez, iparraldeko zonaldeko 12 pilotu onenak supermoto mailan lehiatu ziren, eta saria Jon Kepa Zabala markinarrak irabazi zuen. Ondoren, Txus Jaiok eta Apatako 'Tarsi' pilotuak autoan eta Aitor Martínez motorrean zirela, erakustaldi dotorea eskaini zuten.

Musikaririk ere ez zen falta izan: Bilboko Jardín Inferno eta Abadiño Muted taldeek hartu zuten motor gidarien lekukoa iluntzean.



Aitor Martínez abadiñarra maila onean aritu zen. Judit Fernandez

Zesta jaialdi interesgarria bihar Jai-Alain

Mokorreko arazo batzuk medio ia hilabete lesionatuta egon ondoren, Philippe Baroni zesta-puntaria bihar itzuliko da kantxara, 22:00etan Durango Jai Alain. Angeluko jokariari, Alberdi III. agaz bikotea osatuz, Lander eta Mugartegiaren kontra jokatu du.

Horren aurretik beste partidu bi jokatu dituzte. Lehenengoan Hormaetxeak eta Garaik Aimarri eta Garitari egingo diete aurre; ondoren, Alberdi II.ak eta Felixek Olhari eta Alliezeni.

Hiru partidu antolatu ditu Master Jaik bihar gauerako

AMALURRA[>]

Mancomunidad de la Merindad
de Durango
Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa



Argazkia: Ana Domínguez

Mogikortasun Iraunkorraren Astea, denon artean klima hobetzeko

**Biharko Herri-Martxak
Durangoko eta lurretako
kaleak zeharkatuko ditu,
bidegorria erabiliz**

**Zumalakarregi kalea itxita
egongo da hilaren 22an
ospatuko den
Autorik Gabeko Egunean**

Herri-Martxa deitu dabe biharko, bizikletaz, eta Autorik Gabeko Eguna ospatuko da datorren martitzenean

Durangoko Udala Europako Mogikortasun Iraunkorraren Astea izeneko ekimenera batu da aurten be, aurretik hainbat urtez egin izan dauen moduan. Hilaren 16an hasi eta 22an amaituko da kontzientziazinoagaz lotutako aste berezi hori, baina Durangon egun bateko aurrerapenagaz hasi da; egun ofizialean amaituko da, Autorik Gabeko Eguna ospatuz.

Esandako moduan, martitzenean hasi ziren ekitaldiak. Sigi-Saga, bizikleta zaleen elkarte barria, jendaurrean aurkeztu zen Elkartegian, eta herritarrentzako ginkana be prestatu eben Landako Gunean, euren jarduerari hasiera emoteko. Gainera, Agenda 21eko hiri-partaidetzaren foroa burutu eben, klima aldaketaren kontrako borroka gaitzat hartuta.

Eguaztenean, "Txita-taxi" deitzen diren ibilgailuak ibili ziren herrian zehar joan-etorrian. Doako bidaia horreek mogikortasun iraunkorra bultzatzeko helburua zeukien.

Autorik Gabeko Eguna

Egitarauagaz jarraituz, Herri-Martxan parte hartzeko aukera edukiko dabe txirrinduzaleek. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da Landako Gunean, eta Durango eta lurretako kaleak zeharkatuko ditu. Bidegorri edo bizikleta-bidea erabiliko da, ahal den guztietan.

Astebete irauten dauen ekimen horregaz amaitzeko, Autorik Gabeko Egunean murgilduko dira durangarrak. Hilaren 22an, martitzenean, izango da hori. Goizez munduko jolasen ludoteka erraldoia ipiniko dabe

Ezkurdi plazan, eta arratsaldez, leku berean, puzgarriak, bike trial eta bizikleta zoroekin dibertituko dira bertaratutakoak. Aipatzekoa da Zumalakarregi kalea itxita egongo dela egun osoan. Bestalde, 19:00etan, Mugikortasun Iraunkorraren Udal Plana martxan jarriko dabe, eta berbaldia be eskainiko dabe.

Plan "positiboa"

Egitarau guztia Aitziber Irigoras alkateak aurkeztu eban joan zen barikuan. Ekintzak "hiru oinarri-gaz lotuta" dagozela azaldu eban: Agenda 21eko foroaren ekarpenak (bidegorria), aldaketa klimatikoaren gaineko ordenantza eta Mugikortasun Iraunkorraren Udal Plana. Bere esanetan, plan hori "positiboa" izango da Durangorentzako.

IRAGARKI TAULA

saldu, erosi, alokatu, lanean hasi, lana eskaini, ...
aurkitu bilatzen ari zarena eta iragarri nahi duzuna



ESKAINTZAK

Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperentzia la zerbitzari bez umeeekin...

ERRENTAN EMAN

Durango. Alde zaharreko etxe bat alokagai. Guztiz barrizatuta dago eta hiru gela d 750 euro...

SALDU

Fun roller autokarabana salgai. 2003 urtekoa. 54 km. Motorra Fiat 2.8 JTD 127 zaldi. 24. euro...

HARTU

Neska euskalduna behar dogu 10 urteko neska bati klase partikularrak emateko (ingeles beste irakasg batzuk)...

BEREZIAK

Autoa konpartitzen dut Gasteiztik Otxandiora joateko, astelehenetik ostegunera. 09:30 aurrera...

OPARI

Artzai-txakurrak. Hilabete bateko kuma oparitzen dut. Arra da. Oso polita.
...

e-mail: anboto@anboto.org
Tel.: 94 681 65 58

IRAGARKIAK

ESKAINTZAK
Neska euskalduna edozein lan mota egiteko prest, edozein ordutegitan. Esperientzia la zerbitzari bez umeeekin...

ERRENTAN EMAN
Durango. Aste zaharreko etxe bat alokagai, Guztiz berriztatuta dago eta hiru gela d 750 euro...

LANA

- Eskakerak
- Eskaintzak
- ETXEBIZITZAK**
- Salgai
- Errentan eman
- Errentan hartu
- Pisua konpartitu
- IRAKASKUNTZA**
- Klaseak hartu
- Klaseak eman
- MOTORRA**
- Salgai
- Erosi
- LOKALAK**
- Errentan eman
- Errentan hartu
- ANIMALIAK**
- Salgai
- Erosi
- BESTEAK**
- Berba egin
- Salgai

Osteguneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak ostiral horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

DOAKO IRAGARKIAK (partikularrak):

- Bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org edo
- Deitu 94 681 65 58 telefonora

ORDAINDUTAKO IRAGARKIAK (ez profesionalak):

Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.

LANA ESKAERAK

Abadiño. Ileapaindegi batean lan egiteko neska bat behar da. Tel.: 94 681 78 80

Elorrio. Pertsona bat behar da garbiketa orokorra egiteko enpresa batean. Tel.: 94 658 44 15

Sukaldari laguntzailea behar da. Asteburuetan jai. Tel.: 666 484 210

Andra euskalduna behar da eguerdientan ume bat zaintzeko. Tel.: 649 219 391

Durango. Goizetan (7.30-9.00) umea ikastolara eramateko neska edo emakume euskaldun baten bila nabil. Tel.: 653 012 011

Zaldibar. Gazteleku (ostiraletik igandera) eta Zapatublairako (zapatu bat bai eta bestea ez) hezitzaile bila gabiltza. Beharrezkoa da 18 urte edo gehiago izatea, euskaraz ondo jakitea eta haur nahiz gazteekin jarduteko trebea izan eta gogoia edukitzea. E-mail: haurrak@txatxilipurdi.com Tel.: 943 79 54 46.

Durango. Umeak zaintzeko emakume euskalduna behar da. Irailean zehar 5 ordu goiz/arratsaldez eta urrian zehar 2 ordu arratsaldez. Tel.: 616 748 109

Pertsona bat behar da umeak eskolara eramateko eta etxeko lanak egiteko. 07:30etik 11:00etara. Kotxea izatea derrigorra da. Tel.: 660 723 602

Durango. Zerbitzaria behar da mahaia zerbitzatzeko. Derrigorra da esperientzia izatea, kotxea izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.207. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Sukaldaria behar da menuak eta pizzak egiteko. Derrigorra da urtebeteko esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.208. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Merkataritzako agentea behar da bezeroen bilketa eta mantenturako. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.449. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Merkataritza agentea behar da aseguruaren informazioa eta salmentarako. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.455. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Enpresa batek kazetaria behar du euskaraz lan egiteko. Derrigorra da Kazetaritza lizentziatua izatea, EGA izatea, Quarkxpress eta Photoshop programak menderatzea eta Durangaldean bizitzea. 8 orduko lanaldia, 2009ko urrian hasi eta 2010eko iraila arteko kontratuarekin. Erreferentzia: 6.555. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Iurreta. Elektromekanikoa behar da kontrol numerikoen programaziorako, kableatua eta armairu elektrikoen muntaiarako. Derrigorra da esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.598. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Berriz. Sukaldaria behar da. Derrigorra da urtebeteko esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.626. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Durango. Filologoa behar da elkarre bat dinamizatu eta kudeatzeko. Derrigorra da lizentziatura edukitzea Euskal Filologian edo Enpresaritzan, eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.644. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Zornotza. Sukaldaria behar da menuak egiteko, astelehenetik domekara. Derrigorra da urtebeteko esperientzia izatea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.645. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

Zornotza. Sukaldari laguntzailea behar da pintxoak egiteko, astelehenetik domekara. Derrigorra da esperientzia izatea pintxoak egiten eta barran, euskaraz jakitea eta Durangaldean bizitzea. Erreferentzia: 6.647. SARTU. Tel.: 94-620 04 49. Lanbiden alta emonda egon behar da.

ESKAINTZAK

Asteburuetan pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Aste barruan gauaz. Tel.: 650 610 194

Gizon heldua eta esperientziaduna nagusiak edo gutxitu psikikoak zaintzeko prest. Laguntzaile psikiatriko teknikoa naiz. Tel.: 636 025 493

Magisteritza ikasitako neska esperientziaduna klase partikularrek eman, haurrak zaindu, eskolara eraman edo etxeko lanak egiteko prest. Kotxea daukat. Euskalduna naiz Tel.: 615 735 385

Esperientziadun neska euskalduna arratsaldetan umeak zaintzeko prest dago. Baita beste edozein lan egiteko be. Tel.: 690 776 431

Elorrio. Irailetik aurrera, arratsaldez ume txikiren bat zaintzeko prest nago. Euskalduna, arduratsua eta esperientziaduna naiz. Tel.: 635 704 512

Haur hezkuntzako ikasketak amaituta dituen neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. Tel.: 667 263 411

Pertsona nagusiak eta gaixo daudeinak zaintzeko prest nago, baserrietan. Euskalduna naiz eta neure kotxea daukat. Esperientziaduna. Tel.: 696 139 822

Ostalaritza lan egiteko prest nago. Esperientziaduna naiz. Euskalduna naiz eta neure kotxea daukat. Tel.: 696 139 822

Argazkilari esperientziaduna ezkontza eta bestelako ekitaldietan argazkiak egiteko prest dago. Prezio onean. Tel.: 680 592 903

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Elorrio. Atiko berria salgai. 50 m2. Logela, sukaldea, egongela, komuna eta igogailuarekin. Oso polita. Alokatzeko aukera. Tel.: 606 043 835

Zaldibar. Pisua salgai. 75 m2 ditu, 3 logela, egongela eta ganbara ere badu. Prezio ona. Tel.: 655 739 792

Elorrio. Etxebizitza salgai herri barruan. Igogailuarekin. Logela eta komun birekin. Trastelekua be badauka. Tel.: 657 793 993

Elorrio. Pisua salgai. Hiru logela, egongela, sukaldea, estudioa eta trastelekua. Guztiz berriztatua, eguzkitsua eta oso polita. Tel.: 617 787 165

Abadiño. Etxebizitza salgai Muntzaratz auzoan. 3 logela, egongela handia, 2 komun, sukaldea, trasteleku txiki bi etxean eta ganbara. Berriztatua. Altzariekin, nahi izanez gero. Lokal komertziala aukeran (kotxe birentzako lekua). Tel.: 667 882 338

ERRENTAN EMAN

Elorrio. Pisua alokagai. Tel.: 637 022 444

Txalet txikia urte osorako alokagai Ramalesen, Kantabrian. Tel.: 653 733 457

Durango. Pisua alokagai Kalebarrian. Logela bi. Hirugarren solairua, igogailuagaz. Eraikin berria. Urriaren 1etik aurrera. Tel.: 686 989 963 - 696 163 532

Durango. Pisua alokagai. 3 logela, berogailua eta igogailuarekin. Tel.: 638 125 838

Zaldibar. Pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Tel.: 655 739 792

Zaldibar. Logela bat dut alokagai. Tel.: 655 739 792

Pisua alokagai Peñiscolan. Tel.: 686 562 018

Bungalow bat alokagai Torreveijan. Urbanizazio pribatuan. Igerilekua, 3 logela, egongela, sukaldea eta solariuma. Hondartzatik 200 metrora. Tel.: 615 779 622

ERRENTAN HARTU

Elorrio. Alokatzeko pisu baten bila nabil. Altzariekin. Tel.: 94 658 21 91 (Bego)

Durango. Semeagaz konpartitzeko alokairuko pisu baten bila nabil. Tel.: 605 749 443

KONPARTITU

Durango. Logela alokagai Durango erdialdean dagoen etxe berri batean. E-mail: lagunok@gmail.com

Elorrio. Neska bat behar da pisua konpartitzeko. Tel.: 634 462 503

MOTORRA

SALGAI

BMW 318 IT salgai. 98. urtekoa. Gasolina. 143 zaldi. Pack M. 171.000 Km. 4.500 euro, negoziagarria. Tel.: 662 040 493

Ford Mondeo 1.8 TD salgai. 1997koa. Egoera onean. 2.000 euro inguruan. Tel.: 691 063 278

Opel Corsa 1.7d salgai. 277.000km. 600 euro. Tel.: 656 721 810

Durangaldeko **Behargintza**
Euskal Herriko Garapen Agentzia
Agencia Comercial de Desarrollo
Hainbatunak de la Herriak de Durango
Durangoko Herriak dearen Antzokomunitateak

EUROKO ERKIDEGOA
Europako Gizarte Funtzia

BFA OFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Larrea Irabazkuntza Saria

2009/2010 IKASTURTERAKO PRESTAKUNTZA ESKAINTZA

MEKANIZATU ARRUNTEAN ETA CNCn TEKNIKARIA.....	275 ordu
PRAKTIKAK.....	102 ordu
GERIATRIA-ERIZAINZAN LAGUNTZAILEA.....	278 ordu
PRAKTIKAK.....	240 ordu
INDUSTRIAN ELEKTRIZITATE-MANTENIMENDURAKO LANGILEA... 320 ordu	
INDUSTRI-DISEINUA 2D eta 3D.....	215 ordu
GERIATRIA-ERIZAINZAN ADITUA.....	215 ordu
BIZKARZAINA ETA LEHERGAILUEN ETA SEGURTASUNEN JAGOEA.....	215 ordu
SUKALDE ETA TABERNA LAGUNTZAILEA.....	215 ordu

Izena emateko epea: 2009ko urriaren 16a arte




Durangaldeko **Behargintza** Laubideta, 6 Durango Tf: 94 623 25 22
Orduetgia: astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara

www.amankomunazgoa.com

DENPORAPASAK >

HITZ GEZIDUNAK >

	Giza multzoa	Irizten diot	Zekorrak jokatzaren diren ikuskizuna
	Oinei eraginez	Ugari, jori	
	Nafarroako udalerrria		
	Bilbo, erdaraz		
* Irudiko perrebikoa	Gabe, bako		
Pozoiaren kontrako gai	Titanioa		
-dale, eman eta eman		Zero, bokalik gabe	
Kontso bustia		Jaidura	
	Pl., barazki mota		
	Apurrak, zati txikiak		
Kortezubiko auzoa		Zalantza partikula	
Ekintza gaitzesgarriak		Ardi, hitz elkarketan	
		Tona	
		Garaziko mendia	
Uribe Kosta	Printze indiarra		
Oroitzapena	Beldur handi		
			Nor deklinabidearen atzizkia
Joan den urtea		Garoa, iratzea	
Zaku txikiak		Kontsonantea	

SUDOKU >

1

		8		9		6	2
5			8			4	
	1		3		4	7	
				5	2		8 4
2					9	5	6 7
		7	6	8		2	9 1
		4				8	
8 9							7
3		6	1				5

2

			4				
			6	3			
4						9	5
	9					2	
		1					3
		3		2		9	4
					4		7
			1	5			4
7 8							

HOROSKOPOA >

Aries
marxoak 21 - apirilak 20
Mendekuak okerragoak izan leitekez. Beraz, zaindu zure ingurukoei zer egiten deuteszun, badaezpada be.

Taurus
apirilak 21 - maiatzak 20
Ondo egiten dozula pentsatu arren, eskas baino eskasago kantatzen dozu. Ez emon latarik karaokeagaz!

Gemini
maiatzak 21 - ekainak 20
Bikote hartu-emona ez da norgeiagoka bat. Itzi egizuz eztabaidak albo batera astebetetz, gitxienez. Bake eremura jo.

Cancer
ekainak 21 - uztailak 20
Zelan izan leiteke hain despistatua izatea? Zure etxean be galduko zara egunen batean. Ez daukazu erremediorik.

Leo
uztailak 21 - abuztuak 23
Beste gauza bat itxaroten zenuen, ezta? Askotan ez dogu gura doguna eskuratzen. Dena dela, ez galdu ilusiorik.

Virgo
abuztuak 24 - irailak 23
Sentimenduak argi izan ezean, hoba da gauzak bere horretan iztea. Aste honetan, bota begia beste bati.

Libra
irailak 24 - urriak 23
Ez dozu zorte handirik edukiko aste honetan. Badakizu, bizitza honetan denetik gertatzen da: ona zein txarra. Animo lagun!

Scorpius
urriak 24 - azaroak 23
Kotxea lar erabiltzen dozula emoten dau. Horrek ingurugiroari kalte egiten deuto. Irakurri ale honetako Amalurra atala.

Sagittarius
azaroak 24 - abenduak 23
Besterik ez bada, behintzat, gogoratu egizuz bizitako momentu onak. Gauza guztien alde positiboa baloratzen jakin behar da.

Capricornus
abenduak 24 - urtarrilak 20
Kemena izan behar da aurrera egiteko. Bizitzaren joan-etorrian hainbat ezusteko izango dozu, aste honetan be bai.

Aquarius
urtarrilak 21 - otsailak 18
Tragoxka bat izan behar zela, baina hogeitik gora be izan ziren azkenean. Hori da, hori, sakea! Urak be ez ei dau kalterik egiten...

Piscis
otsailak 19 - martxoak 20
Dantza egin egun eta gaba! Mogitu gerria eta askatu barruko kezak. Bizitza bizitzeko da, adiskide!

ZORION AGURRAK >


agurrak: zorionak@anboto.org-ra
Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta



Orain dela 25 urte Durangaldeko Michael Night jaio zen. Urteotan guztietan amestutako Kit kotxeagaz disfrutatze momentua heldu da! Ondo pasatu eta Durango preparamu daitela! Patxo bat. Surprise surprise **Potxi**.



Mainerrek gaur, irailaren 18an, urteak betetzen ditu. Zorionak eta mosu handi bat, izeko Tximi eta izeko Txororen partez.



Jone Bikandik gaur urtetxo bat egin dau. Zorionak eta mosu potolo eta gozo bat, etxekoen eta lagunaren partez. Zorionak printzesa!



Irailaren 26an **Unai de Miguel Solozabalek** hiru urte egingo ditu. Gure bihurri maiteenari zorionak, familia eta lagunaren partez. Mosu asko, polit hori!



Egoitz Basterretxeak, gaur, irailaren 18an, bost urte egin ditu. Zorionak eta mosu eta besarkada handi handi bat, Elorrioko aitite eta amararen partez.

SOLUZIOAK

K	V	O	L	U	K	V	Z	
V	R	I	•	Z	V	I	•	
•	V	Z	T	I	O	R	O	
V	A	J	V	R	•	K	U	•
T	•	K	V	O	I	Z	V	
E	L	O	•	V	M	O	•	
K	V	B	V	B	•	D	D	
R	Z	•	I	T	I	D	•	
O	T	O	D	I	L	N	V	
K	I	R	B	A	R	•	O	•
E	V	A	R	E	Z	•		
Z	E	N	E	O				
•	D	•	G	•				

1

5	4	9	8	7	1	6	2
3	2	7	1	9	5	6	8
8	7	1	4	4	3	5	6
6	3	5	3	8	2	8	7
4	5	7	6	8	3	2	1
2	8	6	1	4	3	8	7
8	4	1	7	5	2	8	3
6	1	9	6				
5	3	2	7	4	7	4	1
8	1	4	4	1	8		
7	4	8	5	6	1	6	3

2

7	8	4	2	3	6	9	5
9	1	3	2	9	4		
				4		7	
		1	5			4	
7	8						

EUSKO LABEL >

Eusko Labeldun patataren sasoian sartu gara, bete-betean



Eusko Label bereizgarriak goi mailako kalitateko Arabako Patataren identifikazioa eta erabateko ber-



Monalisa eta Kennebecka dira gehien merkaturatzen direnak.

mea eskaintzen ditu. Eusko Labelak aukeratzen dituen patataren landaketak ingurumena errespetatu behar dau eta zapore eta kalitate nutritiboaren analisiak gainditzen dituztenak baino ez dira onartzen. Aukeraketazorrotza izaten da, eta kontuan hartzen dira patataren itxura erregularra, tamaina homogeneoa, kalitate nutritiboa eta defekturik bako azala izatea; horrela, patata bakoxta ahalik eta gehien aprobetxatu ahal izaten da.

Patata motak

Arabako Patataren araudian hainbat patata mota dago onartuta, baina aurten bi izango dira nagusiki merkaturatukoak: Monalisa eta Kennebeck.

Monalisa patata belaualdi barrien patata da, itxura leun eta garbia daukana. Barrutik eta kanpotik hori kolorekoa da; frijitzeko eta mikrouhinetan egiteko oso aproposa izaten da. Patata mota hau 3 kiloko sareko

poltsa horietan aurkeztuta merkaturatzen da.

Kennebeck barietatea Araban oso errotua dago, eta tradizio handia dauka. Azala kolore hori argikoa da eta mamia, berriz, zuria. Zapore bikaina dauka eta oso egokia da frijitzeko eta gisatuak egiteko: altxor bat da gure sukalde eta gusturako. Bere kalitatea bermatzeko patata mota hau ez da garbituta aurkeztzen (lur hondarrak dauzka), izan ere, argiarekiko oso sentikorra da eta ezin da gehiegi maneiatu. 4 kiloko sareko poltsa zurietan merkaturatzen da.

Kanpaina ona izango da

Eusko Labela daukan Arabako Patataren garaia hasi da, eta Eusko Labeleko arduradunek zein ekoizleek urte ona izatea itxaroten dabe, bai kantitateari bai kalitateari jagokonez. Kanpainak irauten dauen bitartean, irailetik datorren urteko apirilera bitartean, 2 milioitik gora patata merkaturatuko dira Eusko Labeleko zigiluagaz.

Patata purea

OSAGAIK:

- 4 lagunentzako:
- 4 patata eder
- Koilarakada 1 gurin
- Edalontzi 1 esne
- Edalontzitxo 1 esnegain likido

Patatak uretan garbitu eta ondo lehortu. Ez doguz zuritu, azal eta guzti behar doguz-eta. Alde guztietatik zulatu doguz patatak, sardexka bat erabiliz. Ondoren, mikrouhinetan jarriko doguz egiten; 12 minutuan indar handiengan.

Bueltaka dabilen plater horietakoa baldin badauka, plateraren ertzean jarriko doguz patatak, hortxe egiten dira-eta azkarren. 6 minutu pasatutakoan, buelta emon.

Patatak eginda daukaguzenean, zuritu eta ontzi borobil batean jarri. Esnea eta ura berotuko doguz, eta patataren gainetik isuriko dogu.

Gurina be gehitu eta irabiagailuaren laguntzagaz pure leun bat lortuko dogu. Hoztu egin bada, apur bat berotu. Amaitzeko oliba olio tanta bat be gehitu leiteke.

On egin!

ARDAOAREN NEGARRA "Noiz bildu behar da mahatsa Durangaldean?"



Mikel Garaizabal
Enologoa

Hemendik egun gitxira mahatsa jasotzeko unean izango gara Durangaldeko upategi guztietan. Batzuek lehenago batuko dabe, eta segurutzat, ia urte guztietan legez, Elorrion daukagun mikroklimagaitik, Mendrakakoak azkenak izango gara mahatsa batzen. Mahats biltzeko hasteko, mahatsa heldutasun fisiologikora noiz heldu den jakiteko eta mahatsaren konposizioa ezagutzeko, azterketa batzuk egin behar dira. Neurketa horreek abuztu bukaeran hasi genduzen Mendrakan, irail hasieran astero egin genduzen, eta mahatsa biltzeko eguna heltzeko denean, 3 egunetik behin egingo dogu. Azterketa horreek egiteko, mahastiko hainbat tokitan dagoen mahatsondoetatik hartu behar dogu mahatsa; horrela jakingo dogu mahastiak izango dauen azukre eta azido kopurua. Kontuan izan behar dogu mahats biltzeko urte guztiko lanaren fruitua batzeko momentua dela, eta hau ilusino eta urduritasun puntu batez bizitzen dogu. Ea eguraldi ona aldeko dogun!

Eusko Labela: ona den seinale



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carriera autorizada

Euskal Okela inguruko harategi hauetan aurkituko duzu

Abadiño

- PINILLA HARATEGIA
TRAÑABARREN, 29-MATIENA

Zaldibar

- GALLASTEGI HARATEGIA
ZALDUASOLO PLAZA, 8

Otxandio

- GAZTAÑETA HARATEGIA
ARTEKALE, 25

Durango

- GALLASTEGI HARATEGIA
ANTSO ESTEGIZ KALEA, 1

- IÑAKI HARATEGIA
SASIKOA KALEA, 10

- OKA HARATEGIA
ANDRA MARI, 3

Baimenduak: Euskal Okela saltzeko Harategi Baimenduak

Especializatuak: Baimenduak izateaz gain, Euskal Okelarekin eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten harategiak

Euskal Herrian ekoiztuak, ingurunea errespetatuz eta kontrol zorrotzak pasatuz, gozo-gozoak, eta kalitate handikoak. Honelakoak dira "Eusko Label" zigilua duten gure produktuak. Bilatu logotipoa eta desberdintasuna dastatu.



Orain, gainera, Kalitatezko Euskal produktuekin betetako saski bat irabaz dezakezu



Goi-mailako elikagaiak
Alimentos de calidad superior

Kalitatezko euskal produktuekin betetako saski baten zozketan parte hartzeko "Eusko Label" zigilua duen produkturen baten etiketa zure datuekin eta telefonoarekin batera bidali hurrengo helbide honetara:

Erref.: "Eusko Label Saskia"
Anboto Astekaria
Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta



Pedro Pablo Arrinda
Irakaslea

"Zaldian ibiltzea eta rantxoko mundua asko gustatzen jaku"

Joan zen asteburuan Euskadiko Western Txapelketa antolatu eban Zaldibarren Egurrolak

Asteburuan Zaldibarren jokatu daben Euskadiko Lehenengo Western Txapelketak antolatzaileen aurreikuspen guztiak gainditu ditu. Herria, mendebaldeko filme bat legez, cowboy eta cowgirlez beteta izan dogu. Igor Egurrola mallabitarra txapelketaren antolatzailerak izateaz gainera, parte-hartzailea be izan da.

Zelan joaOn da asteburua?

Oso pozik gagoz asteburuko txapelketak izan dauen arrakastagaz. Kanpotik etorri diren parte-hartzaileak be gustura egon direla esan deuskue.

Zelan sortu da txapelketa Zaldibarren antolatzeko asmoa?

Igaz Zaragozan jokatu behar genduen txapelketa prestatzeko, Zaldibarko futbol-zelai zaharrean entrenatu ginen. Egun haretan jente mordo hurreratu zen ikustera. Harrera hori ikusita aurten txapelketa bertan antolatzea pentsatu genduen, musika eta txosnak jarriz. Udalaren laguntasuna jaso dogu.

Nondik jatortzu westernerako zaletasuna?

Lagun talde bat trabesiak egiten hasi ginen. Orain bost urte lagun batzuk Euskal Westerna antolatzen hasi ginen. Team penning egiten zela ikusi eta modalitate horri ekin geuntsan.

Western arloan zer modalitate da hori?

Team penning deitzen da. Behi talde batean, bakotzak zenbaki bat dauka eta epaileak esandako hirurak hiru zaldizkok hesian sartzea da helburua.

Espainiako Txapelketan lehenengo postuan zagozie.

Arboledako Jon Fernandez, Berrizko Jesus Bazeta eta hirurok lehenengo postuan gagoz, 20 puntu-gaz. Orain irailaren 26an eta 27an Zaragozako Txapelketara joan behar dogu.

Euskal Western elkarteak sortu dozue.

Elkartean 17 lagunek dihardugu. Txapelketara joan eta taldeak egiten doguz. Izena emotean hiru talde sortu zeinkez. Bakotxean talde batean parte hartzea tokatzen jatzu.

Hau ez da rodeoa orduan.

Ez, rodeoan zezen eta zaldi basatiak montatu behar dira. Kasu honetan, zaldia ondo hezi behar dozu. Behi gelditzen denean zaldiak be gelditu egin behar dauela jakin behar dau, eta behia mugitzen denean haren atzetik bizkor joan behar dauela.

Non entrenatzen dozue zaldia?

Oizera joaten gara behiekin entrenatzera. Gainera, etxean bakotzak bere pista dauka zaldiagaz entrenatzeko.

Baserrian biziko zara orduan.

Bai, beti izan doguz zaldiak gure etxean;

rantxo mundu hau asko gustatzen jaku.

Mendebaldeko pelikulak gustuko izango dozuez.

Bai, gustatzen jakuz, baina ez denak. Pelikula serioak gustuko doguz; batez be, rantxoko lanak erakusten ditueenak.

Eskualdeko neskek be parte hartzen dabe.

Irantzu, Paula eta Larak parte hartu

daben lehenengo aldia izan da. Gogo handiagaz hartu dabe lana. Trabesietan geugaz etortzen dira, eta zaldi gainean ondo ibiltzen dira.

Txapelketa aurretik ikastaroa izan eben.

Kataluniatik Juan Arakistain etorri zen, ikastaroa emotera. Hipika handi bat dauka eta zaldiak hezten ditu. Txapelketa aurretik ikastaroa egiten dogu, arauak ezagutzeko.



Igor Egurrola

- Mallabitarra da
- Euskal Western elkarteko kidea da

GALDERA:

Zelan deitzen da asteen lurretan aurkeztu duten emakume elkarteak?

Izena: _____

Tel.: _____

Makatzeta jatetxerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Bixente Kapanaga, 9 lurreta edo astokana@anboto.org
helbideetara, Hilaren azken alsean agertuko da irabazlea.



Makatzeta
ARRAZOLA
Arrazola- Atxondo
Tel.: 94 658 29 31